

Kultura

'Atletes, baixin de l'escenari' diskoa aurkeztuko du
Kataluniako Manel taldeak bihar, Elorrioko Tola jauregian >13



JAIK!

**GARAI
MAÑARIA
MALLABIA**



Otxandioko herritarrak etorkizuna eraikitzen

Herrigintza eta komunitate sentimendua oinarri
dituen Herri-ola gogoeta prozesuaren ondorioak
aurkeztuko dituzte Otxandion >3



EGYRANGA S.L.
PIÑU-EGUR SALEROSKETA
COMPRA-VENTA DE MADERA DE PINO

ZUBIALDE, S. A.
-ren hornitzaileak

Ander Lejarazu Marina
Tel.: 616 650 284

Durango > 2

Hiltegia bota, eta auzorako
gune berri bat sortuko dute

Elorrio > 4

Gasolindegia itxi egingo dute, urte
luzez zerbitzua eskaini eta gero

Berriz > 9

Biomasa galdaragaz berotu gura
dituzte eskola eta kiroldegia

Durangaldea > 8

Diru-laguntzak emango dituzte
zazpi langile kontratatzeko

Herririk herri

Hiltegia botatzen hasiko dira, eta auzorako gune berri bat sortuko dute

Gerora gizarte etxe bat eraikitzea dago aurreikusita

DURANGO Markel Onaindia Durangoko hiltegi zaharra botatzen hasiko dira hilabete amaieran. Udalak informatu duenez, sei asteko iraupena edukiko du eraisteko prozesuak, eta gero lur hori egokitzeko lana ere garatuko dute. Izan ere, Aramotz auzunerako espazio berri bat sortuko da eremu horretan. Etorkizunean gizarte etxe bat eraikitzea dago aurreikusita.

130.000 euroko aurrekontua erabiliko dute eraikina eraisteko. Geroko, eremua egokitzeko, beste 68.000 euro gorde dituzte. Lursaila lisatu egingo dute, itxidurak kendu, eta lurra berdintzeko material bat botako dute. Ondorioz, udalaren arabera, gune zabal bat geratuko da, aparkaleku moduan erabiltzeko eta azokak egiteko, adibidez.

Ez dago eperik ezarrita, baina udalaren intentzioa bertan gizarte etxe bat zabaltzea da. Auzotarren aspaldiko eskaera bat da hori, eta Herria auzo elkarte-ko Angel Longartek azaldu du horren arrazoia: “Guk ez daukagu zerbitzu publikorik inguruetan”. Horregatik, irailean uda-

Gune zabal bat geratuko da, aparkaleku moduan erabiltzeko eta azokak egiteko, adibidez

lagaz berriro batzartzeko asmoa daukate, proiektuari buruz berba egiteko. Zentroaren baldintzak eta ezaugarriak zehaztea izango da lana. Gainera, sasoi



Hilabete amaieran hasiko dira hiltegia botatzen.

bateko egoera ekonomiko onean egindako aurreikuspena gaur eguneko krisi egoerara egokitu beharko dela uste du Longartek.

50 urteko historia

Hiltegia 50 urtez baino gehiago egon da martxan. Baserritarren eta udalen ekimenez jaio zen, eta 2007tik 2012ra bitartean Erralde

irailean udalagaz berriro batzartzeko asmoa daukate, proiektuaz berba egiteko

hiltegia egon zen bertan. Baina udalak epe baterako baimena eman zuen, batez ere auzotarren iritzia kontuan hartuta. Horregatik, Erraldek Berrizen erosi zuen hiltegi berrirako lurra. Azkenean, krisi sasoiaren proiektuak ez zuen aurrera egin, eta udalak zorra likidatzeko lanean dabilta.

Udalaren erantzunean aitzakiak ikusi ditu EHEk

Udalagaz tratua euskaraz izateko eskatu zuen EHEk



EHEk deituta, hainbat herritarrek egin zuten eskaera Tramitazio Egunean.

DURANGO M.O.

Udalaren eta herritarren arteko tratuan euskaraz bizi gura dutenen eskubidea ez dela betetzen uste du Euskal Herrian Euskarazek. Musika eskola, Pinondo Etxea eta kiroldegia ipini ditu adibide lez. Horregatik, eskubide horren aldeko dinamika piztu zuen martxoan. EHEkoek tratua euskaraz izateko eskaera egitera animatu zituzten herritarrek, eta 200dik gora lagunek aurkeztu zuten. Udalaren erantzunik jasotzen ez zutela-eta, protesta bi egin zituzten udaletxe aurrean. Lau hilera jaso dute erantzuna.

EHEk adierazitakoaren arabera, udalak euskaraz bizitzeko eskubidea aitortu die, eta hori betetzeko borondatea agertu ere bai. “Baina aitzakia ugari jartzen ditu, hori gaur bertan ez bermatzeko”.

La Oka dendetan jazarpena dagoela salatu du CNTk

Joan zen zapatuan elkarretaratzea egin zuen CNTk

DURANGO M.O.

CNT zentral anarkosindikalista mobilizatu egin zen joan zen zapatuan, Durangoko La Oka dendaren aurrean. Ataco enpresak daukan delicatessen kate bat da La Oka, eta bertan behargineko jazarpena dagoela salatu du sindikatuak. Gainera, Lan Harremanen Kontseiluak CNTko afiliatuen izenak “modu ilegalean” filtratu zituela ohartarazi du, eta orduz geroztik jazarpena handitu egin dela. Kide horiek defendatzeko dauzkaten “baliabide guztiak” erabiliko dituztela azaldu dute: “Ez dugu onartuko

enpresak gure kideei neurri diskriminatzaileak ezartzea”.

Langileak emakumeak dira, eta, CNTren ustez, euren kontra dabil enpresa. Gainera, dirua epaiketetan gastatzen ibiltzea egotzi dio sindikatuak enpresari: “Okerreko estrategia baten barruan, epaiketetan gastatzen dituzte bitartekoak, eta helburu bakarra dute: emakume langileei lanaren eta familiaren arteko uztarketa oztopatzea”.

Zentral anarkosindikalistak adierazi du, protesten eraginez, beharginen eskaerak betetzen dabilela enpresa.

Laguntzaileak:

BFA DFB Bizkaiko Foru Aldundia
Kultura Saila

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

diruz lagundutakoa

anboto
komunikabideak

Bixente Kapanaga, 9
48215-Iurreta
(Bizkaia)
Tel.: 946 816 558
Erredakzioa:
946 232 523
Publizitatea:
946 217 902
publi@anboto.org

2014ko uztailaren 18a,
12. urtea - 554. alea

Zuzendaria:
Jone Guenetxea Arrinda.
Administrazio burua:
Itziar Belar Zubizarreta.
Administrazioa:
Miren Abasolo Txabarri.
Publizitatea: Goretti Alonso
Armendia, Amaia Huarte Basabe,
Itxaso Altuna Marina.
Erredakzioa: Aitziber Basauri
Gandiaga, Itsaso Esteban Urriaga,
Joseba Derteano Bilbao,
Markel Onaindia Txabarri
eta Amaia Ugalde Begoña.
Maketazioa: Eider Alberdi Bengoa.
Zuzentzailea:
Jon Ander Urkiaga Egidazu.
Argazkilaria: Kepa Aginako, Zalao
Fuertes.

Garapen eredu berrirako bidean, proiektu zehatzak diseinatzen hasiko da Herri-ola

Herri-ola egitasmoak Otxandio etorkizunean hartu beharreko norabidea definitu du; uztailaren 25ean orain arteko lana laburbildu, eta aurrera begirako erronkak azalduko dituzte Andikona plazan



Maiatzean egindako herrigintza tailerreko une bat; batzar horretatik hamar proiektu zehatz irten ziren etorkizunera begira.

OTXANDIO Joseba Derteano Herri-ola Otxandioaren etorkizuna eraikitzeko herri egitasmoa da. Garapen eredu berri baterako trantsizioan, norabidea zehaztea eta bide horretan sakontzea helburu duen egitasmoa. Herrigintza eta komunitate sentimendua oinarri hartuta, azken urtebetean garatu den gogoeta prozesuak garapen eredu berri horretarako iparrak zehaztu ditu. Orain, “salto berri bat emateko ordua” heldu dela diote prozesuko partaideek. Uztailaren 25ean, 22:00etan, Herri-olaren inguruan Andikona plazan egingo den ekitaldiak horixe du helburu: orain arteko bideari errepasoa egitea eta Herri-olak hasiko duen bide berriara irekitzea.

Lehenengo, musikak lagundutako irudien bidez, orain arte egindako bidea laburbiltzen duen bideo bat eskainiko dute. Ondoren, herritar talde baten sormenetik jaiotako *Bagara eta bagoaz* film laburra estreinatuko dute; estreinaldi horretan Unai Iturriaga bertsolaria eta Ander Lipus aktorea egongo dira, besteak beste. Ekitaldiko azken osagaia aurrera begirako

mezua izango da; ekintza zehatzak errealitatera eramateko hastear den prozesua izango du te berbagai.

Bizitza kalitatea helburu

“Etengabeko garapen ereduak eragin duen gaur egungo krisia da” Herri-ola egitasmoaren abiapuntua. Baina ez krisi ekonomikoa bakarrik, “krisi hari desberdinak lotzen” direla uste dute Herri-olako kideek: krisi ekologikoa eta energetikoa, beste hainbaten artean. “Aro berri baten aurrean gaude”, azaldu dutenez, eta argi dute zein den helmuga: bizi-kalitatea oinarri duen Otxandio eraikitzea. Herri-ola egitasmoaren barruan, eraldatze prozesu horren zama herriko eragile guztiena dela uste dute: gizarte zibilarrena, udalarena eta eragile ekonomikoena.

Orain sei urte hasi zen prozesua da Herri-ola, eta azken urtean urrats asko eta zehatzak eman ditu. Elkartasuna, iraunkortasuna, parte-hartzea eta euskalduntasuna kontzeptuek osatutako esparruaren barruan, herriaren hezurdura osatzen duten ildo estrategikoak eztabaiatu, eta helburu berrie-

tara egokitu dituzte; prozesu horretatik hamar proiektu estrategiko irten dira, eta datozen urte bietan proiektu horiek gorpuzten ahaleginduko dira. Bide hori zelan egin erabaki behar dute orain. Ekintza bakoitzaren ardurak eramateko batzordeak sortuko diren, edota aurreran-

tzean Herri-olak zer egitura juridiko izan beharko lukeen, besteak beste.

Era berean, herri garapenerako aholkularitza zerbitzu bat kontratatuko dute, ardura zehaztuekin, garapen sozioekonomikoari arreta berezia ipiniko diona.

10 PROIEKTU BIDEAN AUERRERA EGITEKO

1. Lehen eta hirugarren sektoreetan enplegua sortzeko estrategia diseinatu eta garatu.
2. Bigarren sektorea: gune industrialaren garapenerako proposamen estrategia landu.
3. Biomazaren ustiapenerako ekimen ekonomikoen inguruko bideragarritasun azterketa amaitu eta datuak gizarteratu.
4. Biogasa sortzeko eta kontsumitzeko proiektua fase erabakitailerara eraman.
5. Araztegi berriko proiektua fase erabakitailerara eroan.
6. Birziklatze tasak hobetzeko proiektua diseinatu eta gauzatu.
7. Herriko kirol eskaintza antolatzeko proposamena diseinatu eta gauzatu.
8. Curriculum lokala diseinatu, herria eskolara eta eskola herrira hurbilduta.
9. Nagusi prozesuaren barruan zaintzaileen topagunea martxan jarri.
10. Jubilatuen elkarte biziberritzeko programa diseinatu eta martxan ipini.

Kultur etxeko beheko solairuko ateak eta leihoak aldatuko dituzte

GARAI Markel Onaindia

Udalak kultur etxeko beheko solairuko ateak eta leihoak aldatuko ditu. Obra hori egiteko diru-laguntza eskatu dio Bizkaiko Foru Aldundiari, baina momentuz ez du erantzunik. Laguntza jasoz gero, obrak seguruenik udazken bueltan egingo direla esan dute udal arduradunek.

Egun dauden egurrezko ateak eta leihoak kendu, eta aluminiozkoak ipiniko dituzte

Obrarako aurrekontua 38.500 eurokoa izango da. Egun dauden egurrezko ateak eta leihoak kendu, eta aluminiozkoak ipiniko dituzte. Elkarte gastronomikoa eta ume zein gazteen lokala dauka lehenengo solairuan.

Mallabia I pilotalekuko jarlekuak atondu ditu udalak

MALLABIA Jone Guenetxea

Mallabiko Udalak pilotalekuko jarlekuak konpontzea erabaki du. Udal ordezkariak azaldu dutenez, pilotalekuko erabiltzaileak kexu ziren, eraikina berriztu zutenetik jarlekuak ez zirelako erosoak. “Hasierako diseinua ez zen egokia, eta beste era batera ipini ditugu, euskarri baten gainean, lurretik altuera txikiagora”, esan du Mila Mondragon alkateak.

Lan honekin batera, baranda batzuk ere jarri dituzte, erabiltzaileek jarlekuetara bidean heldulekua izan, eta errazago heltzeko. Pertsona nagusiei eta mugikortasun arazoak dituztenei begira erabaki dute heldulekuak jartzea.

enpresa-bilera ospakizunak urtebetetze jaunartze bataio

%20ko DESKONTUA,
UZTAILA ETA ABUZTUAN

688 864 975
info@zuretxokoa.com

DURANGON ORDUKAKO TIKRO ALKATEA

ZURE txokoa

www.zuretxokoa.com

Komentutukale 23 beheko, 5. esk. • 48.200 Durango • BIZKAI

A. Urreta
podólogo

Podinara Urreta Jainaga

- Oinetako patologiak
- Neurri egindako plantillak
- Oinetako beste hainbat gaitz

IMQ MAPFRE

Herriko gudarien kalea, 10, beheko
48200 • DURANGO
Tel./Faxa: 946 215 404

R.P.S. 21406

Gasolindegia itxi egingo dute, urte luzez zerbitzua eman ostean

Datorren eguaztenetik aurrera ez dute zerbitzurik emango gasolindegian



Gasolindegiko jabeak joan zen astean eman zien berria beharginei.

ELORRIO M. Onaindia
Kalean zebilen zurrumurrua egia bihurtu da. Elorrioko gasolindegia itxi egingo dute, eta berehala gainera. Datorren eguaztenetik aurrera ez dute zerbitzua emango. Jabeak joan zen astean eman zien berria beharginei. Errentagarritasunik eza izan ei da itxieraren arrazoiak; Cepsa enpresak gasolindegiko jabeak ezarritako

irabazi tarteez ez ei zuten etekinatarako aukera handirik ematen. Herrigunearen sarreran,

Gaur egun hiru behargin egon dira bertan lanean, eta batek 35 urte zeramatzan

San Fausto auzoan egon da urte luzez gasolindegia. Gaur egun hiru behargin egon dira bertan lanean, eta batek 35 urte zeramatzan.

Gasolindegia itxita, gasolina hartzeko San Agustineko makina automatikoak bakarrik geratzen dira herrian. Bestela, Abadiñoko Eroskin edo Berrizko Eitua industriagunean dituzte hurbilen gasolindegia.

Nanuken ez direla akordioak bete esan dute beharginek

ELORRIO M.O.

Azaroan akordioa sinatu zuten Nanukeko zuzendaritzak eta beharginek, tentsio handiko greba baten ostean. Bada, langileen batzordeak jakinarazi du hainbat akordio ez direla bete. Herrian kartel informatiboak ipini dituzte, egoeraren berri emateko.

Beharginen arabera, lan hitzarmena ez dute bete, adostutako lanorduak baino 160 gehiago ezarri ei direlako batez beste. Alde biek %4ko soldata beharapena adostu zuten, hurrengo urteetan bueltatzeko konpromisoagaz. Gai hori epaitegietan ibili da, eta sententzia beharginen aldekoa izan zen. Sententzia errekurritu zuen enpresak, eta, horregatik, akordio hori ere ez dela errespetatu esan dute langileek.

Gainera, urtarrilean behargin bat kaleratu zutela diote, "greba egiteagatik". Gerenteak beste hiruren kontra ere salaketa ipini du, eta irailean izango da epaiketa, beharginek aurreratu dutenez.

Areto futbol txapelketagaz jarraituko dute Uda Gaztetxeroa

ELORRIO M.O.

Elorrioko gaztetxeak aurtengo udan ere aisialdirako alternatiba eskainiko die herriko gazteei. Martxan dago aurtengo Uda Gaztetxeroa, eta asteburu honetan jarraituko dute ekimen horren egitarauagaz, IX. Kale Areto Futbol Txapelketagaz.

Joan zen asteburuan egin zuten lehenengo ekintza. Urbasara irteera prestatu, eta asteburu-pasa egiteko aprobetxatu zuten gazteek. Asteburu honetan kaleko areto futbolaren txanda izango da: aurreko urteetan arrakasta eduki du. Bederatzigarren edizioa izango da, eta lagun-taldeka banatuta jokatu dute plazako pilotalekuan.

Abuztuaren 2an, berriz, Larrazetako Gazte Jaira joango dira. Hil horretan, 4tik 10era, eskalada eta zubi-saltoa egingo dituzte, eta kobazuloetan ibiliko dira, eta 15etik 17ra Pirinioetara egingo dute txangoa. 18an eta 19an, osterara, mus txapelketan jardungo dute. Gainera, eguazteno afariak emango dituzte, eta eguinetan bideak.

Gazetako kofradiak jaurtiko du Ferixa Nausikoetako txupinazoa

Joseba Attard eta Aiert Zubigarai dira aurtengo kartelaren egileak

ELORRIO M.O.

Ferixa Nausikoetako nobedadeen berri eman du asteon Elorrioko Udalak. Gazeta auzoko kofradiako kideak izango dira jaiak hasiera ofiziala emango dietenak irailaren 6an, txupinazoa jaurtita eta pregoia irakurrita. Auzo horretako kofradiak 400 urte bete dituela azaldu du Ana Otadui alkateak. Gaineratu duenez, "Gazetako auzokideek Elorrioren jatorria diren landa inguruetako auzoetako biztanleen lana sinbolizatzen dute".

Ferixa Nausikoetarako nobedadeen artean, aurtengo su artifizialak berreskuratuko dituztela nabarmendu dute jaien antolatzaileek. Gainera, umeei zuzendutako ekintzak ugaritu egingo dituzte. Horretarako, animazioz betetako hiru erromeria izango dira. Horiekin batera, txu-txu tren eta txirrista erraldoia ere izango dira aurtengo.

Bestetik, urtero jendetza biltzen duten ekitaldiei eutsiko diete aurtengo ere. Sukalki Egunak, helduen eta umeen danborra-

dak, karrozen jaitsierak, bertso saioak eta beste hainbat ekitaldik biribilduko dute egitaraua.

Atsoak eta astoak

Joseba Attard eta Aiert Zubigarai dira jaiak iragarriko dituen kartelaren egileak. Parte-hartzea eta jaien alaitasuna islatu gura izan dituztela azpimarratu du Attardek. Jone Guenetxea ANBOTO astekariko zuzendariak 500 euroko saria eman zion martitzeneko aurkezpenean Attardi.



Fernando Azkarate, Ana Otadui, Joseba Attard eta Jone Guenetxea aurkezpenean.

Abuztuan ere irekita
Euskal sukaldaritza tradizionala.
Arraina eta okela txingarretan.

Goiuria auzoa, 16 - 48215 Iurreta (Bizkaia)
Tel.: 946 810 886 • www.asadorgoiuria.com

artekalea, 14 durango
946 810 776
info@hitzliburudenda.com

Aste honetan Hitzek gomendatzen dizu:

HELDUENTZAT

GORBEIALDEKO SENDABELAR TRADIZIONALAK
Gorka Menendez Baceta (2013)

UME ETA GAZTEENTZAT

UNTXTXO TXURIA
X. Ballesteros eta O. Villán (2014)

MUSIKA

SOKEN DANTZA
A. García Martínez & Aiko taldea (2013)

Uztailean erakusketa berrituko dugu



FORD FOCUS
 > **EcoBoost motorra**
 Esposizio 1.500
 auto prezio berezian.

7.100
 eurorainoko
 deskontua

www.fordkondia.com



ford.es

Ford Focus gama batez besteko kontsumo konbinatua 4,2tik 7,2 litroa 100 kilometroko. CO2 emisioa 109-169 g/km. Esposizio auto batzuetara mugatutako deskontua. Eskaintzak barnean biltzen ditu: BEZa, IM, garraioa, promozio deskontua, Aport., kontzesioa eta deskontua FCE Bank plc S.E. Bankuaren 'Vente a Ford Credit' kanpainaren bitartez finantzitzearen; gutxiengo iraunkortasuna 24 hilabete. Gobernuaren PIVE planaren aportazioari lotuta. Deskonturik handiena aldatu egin daiteke modelooren arabera. Penintsulan eta Balearretan baliagarri hilabete amaierara arte. Beste doskontu batzuekin ez da bateragarria. Irudiko modeloak ez du zertan bat etorri eskaintzakoarekin. Ford.es

FORD KONDIA

Otaola etorb. EIBAR
 Tel.: 943 207 650

ZIORLA AUTOAK

Santamaña kalea, 19 IURRETA
 Tel.: 946 815 135

BERRIA



FORD KA

> **Auto-Start-Stop sistemarekin**

Osagarri ezin hobe bat edukitzeko aukera paregabea. Edonora eraman nahiko duzu, zure erritmora egokitzen den bakarra delako. Aprobetxatu, eta eraman ezazu Auto-Start-Stop sistemarekin, aire girotuarekin eta MP3arekin.

5.990€



Oraindik ere ibilgailu erabili bat al duzu buruan?

Gaur Kuadrillen Eguna ospatuko dute Karmengo jaien barruan

Txosnagunean egingo duten bazkarirako 310 lagunek eman dute izena



Txallengeko probetako bat piraguetan osatzen dute parte hartzen duten kuadrillek.

ZORNOTZA Joseba Derteano Zornoza kultur elkarteak piztutako txupinagaz, martitzenean hasi zituzten Karmengo jaiak.

Jaietako egitarau anitzaren barruan, Kuadrillen Eguna ospatuko dute gaur, askotariko ekintzen bidez.

Eguerdiko poteoaren ostean, txosnagunean bazkaria egingo dute. Guztira, 310 lagunek erosi dute bazkarirako txartela. On-

doren, Erdi Aroko jokoak egongo dira. Joko horiek “sorpresa izango dira denontzat”, adierazi du Zornotzako Gazteak elkarte-ko Enara Lauzirikak: “Unean bertan izango dugu denok joko horien berri”. Gero, 19:00etan, parte-hartzaile guztiek berriro herriko txoko guztietara zabalduko dute jai giroa poteo herrikoia- ren bidez.

Kuadrillen arteko txallengea Kuadrillen arteko txallengeak arrakasta handia izan du azken urteetan. Aurten hamazazpi kuadrilla dabilta parte hartzen. Lau proba falta dira aurtengo irabazlea nor den jakiteko: zapatuan, marmitako lehiaketan parte hartuko dute; martitzenean, play-back lehiaketan; eguaztenean, piragua jaitsieran; eta, barikuan, herri kiroletan. Iazko txallengea Billur Barik kuadrillak irabazi zuen; Nire Ardiek eta Lastobixerrak geratu ziren bigarren eta hirugarren.

Errogatiba Eguna ospatzera Urkiolara joateko autobusa

ABADIÑO Itsaso Esteban Bando bidez eta komunikabideetara bidali duen ohar baten bidez jakinarazi du Abadiñoko Udalak autobusa ipiniko duela abuztuaren 30ean Errogatiba Eguna ospatzera joan nahi duten jubilatuentzat.

Urkiolako santutegira egun-pasa joan nahi dutenak batu, eta 10:30ean aterako da autobusa Urkiolarantz. Meza izango dute 11:30ean, Urkiolan, eta bazkaria 14:00etan. Udalak adierazi du uztailearen 23ra arteko epea daukatela izena eman gura dutenek: Traña-Matienako udal bulegoan zein Zelaietako mediatekan eman daiteke izena. Hamabost euro ordaindu behar da izena emateko.

Herriko pilota txapelketako partiduak jokatuko dituzte bihar arratsaldean

Pilota txapelketan herritarrak dira protagonista

MAÑARIA Markel Onaindia Pilotazaleek hitzordua daukate bihar arratsaldean, Mañariko pilotalekuan. Izan ere, herriko pilota txapelketako partiduak jokatuko dituzte 17:00etatik au-

rrera. Herritarrak izango dira protagonista, eta hamar bat bikotek parte hartzea espero dute. Jai Batzordeak antolatu du urtero ospatzen den txapelketa. Bihar kanporaketak jokatu-

ko dira, eta finala jaien barruan izango da. Bihar, hamabi tantotara jokatuko dituzte neurketak, faseka, eta azkeneko bikote biek final horretara sailkatzea lortuko dute.

Finalak, Andra Mari egunez Pilota txapelketako finala abuztuaren 15ean jokatu da, Andra Mari egunean bertan. Eguerdiko 13:00etan hasiko da norgehiagoka, eta hor erabakiko da zeintzuk diren Mañariko pilotaririk onenak.

Luhartz eta Lotxo taldeen erromeriak herriko jaietan

IZURTZA J.D. Oraindik hilabetetik gora falta da herriko jaietarako, baina apurka-apurka egitaraua zehazten ari da udala. Musika kontzertuak eta bertso saioak lotuta dituzte, esaterako. Irailaren 7an, Santa Ageda ermitaren

inguruan Iratxe Ibarra, Oihana Bartra eta Erika Lagoma bertso-lariak ariko dira; ondoren, Lotxo taldearen erromeria izango da. Irailaren 14an, Santo Tomas ermitaren inguruan berriar- taren bertso saioagaz gozatzeko aukera egongo da: Miren Amuriza eta Gorka Lazkano ariko dira bertsoan.

Herrigunean ere askotariko ekimenak egongo dira herriko jaietan; Luhartz taldeak, adibidez, erromeria eskainiko du irailaren 13an, zapatuan.

Santa Maña eguna ospatuko dute gaur, Arriandin

IURRETA Amaia Ugalde Eguerdian meza eta tortilla txapelketa izan dituzte gaur, Santa Maña egunez. Arriandiko auzokideek jai giroan amaituko dute eguna. 18:00etan, Amezketako eskolan briska txapelketa izan-

go dute, eta handik ordu erdira umeentzako jolasak hasiko dituzte. 21:00etan herri afarian elkartuko dira, eta afal aurretik eta ostean Lotxo taldearen erromeriaz gozatu- ko dute.

Gaur zortzi, Orozketan Datorren barikuan santixauak hasiko dituzte Orozketan. 25ean bertan meza, Mikel Deuna dantza taldearen saioa eta paella txapelketa izango dituzte eguerdian.

Kultura, kirol eta gizarte erakundeen artean 167.000 euro banatu ditu udalak

Jai Batzordeari 30.000 euro bideratu- ko dizkio aurten

IURRETA A.U. Iurretan hemezortzi elkarte dabilta lanean momentu honetan. Herrian bertan dauden talde horiei eta beste zortzi elkar- teri

diru-laguntzak banatu- ko dizkie udalak; guztira, 167.000 euro.

Banaketa horretan, Jai Batzordeari, esaterako, 30.000 euro bideratu- ko dizkio, eta kirol

elkar- teen artean 71.000 euro banatu- ko ditu. Maiztegi eta Orobiogoitia ikastetxeetako guraso elkar- teentzat, bestalde, 20.000 euro bideratu- ko ditu.

Iurretako elkar- teez gainera, Bizkaiko Bertsozale Elkar- teari, Jaedi, Geu Beri, +Dendaki, Gorabideri eta Herria auzo elkar- teari eman dio diru-laguntza udalak: “Egoitza fisikoa udal- rrian ez izan arren, iurretaren- tzat garrantzitsuak diren elkar- teak dira”, azaldu du alkateak.

ERMUA SANTIXAUAK 2014
TXIKURIXA

Euskal Birusa Elkarte eta ANTIXIKETAN
Euskal begiraleen taldeak kudeatutako TXOSNA.

UZTAILAREN 18, 19, 24, 25, 26 ETA 27AN ZABALIK.
PRIMERAKO GIROA ETA OGITARTEKOAK GOXO-GOXOAK!

aTaRa ZARaTa!
GORA SANTIXAUAK!

Erdiko kale, 5
Plaza ondoan



**ABADIÑON,
GEREDIAGA AUZOAN
SALBADORE JAIK
2014**

ABUZTUAK 1, barikua

Iluntzeko 20:00etan Donien Atxa jaso eta txapligu eta trikiti doinuekin jaiei hasiera ematea.

Gaueko 21:00 aldera Jai Batzordeak, **EUSKAL OKELAZ egindako gisatua** banatuko du jai eremura hurbildutako guztien artean.

Gaueko 22:00etan DJ Patry karrozilentzako jaia, aspaldiko doinuekin.

Gaueko 23:00 retan Ezten Giro taldearekin erromeria.

Erromeria ostean "Igo bolumena" **DJ Patry**rekin.

ABUZTUAK 2, zapatua

Arratsaldeko 18:30ean asto lasterketa

SARIAK

1- 80 euro, txakolin kutxa eta txanpain botila .

2- 60 euro eta xanpain botila .

3- 40 euro eta xanpain botila .

Saririk jaso ez duten parte-hartzaile guztiei 15na euro emango zaie.

Arratsaldeko 19:30ean tortilla txapelketa

SARIAK

1- 60 euro, gazta bat eta ardo botila bi.

2- 40 euro eta ardo botila bi.

3- 20 euro eta ardo botila bi.

Parte-hartzaile guztiei piperrak banatuko zaizkie.

Jai Batzordeak KALITATEZKO EUSKAL TOMATEAZ prestaturiko entsalada eta ardoa jarriko ditu plazan, afari-merienda egingo dutenen artean.

Gaueko 22:30ean bertsolariak

- Andoni Egaña

- Jon Maia

- Amets Arzallus

- Unai Iturriaga

Gai-jartzailea: Maite Berriozabal

Gaueko 00:00etan erromeria, **Luhartz** taldearekin.

ABUZTUAK 3, domeka

Goizeko 12:00etan meza

Meza ostean "HAMABI HARRI" dantzarien eta irlanderen **dantza saioa**.

Goizean bakailao txapelketa pil-pil erara:

SARIAK

1- 80 euro, gazta eta txakolin kutxa .

2- 40 euro eta txakolin botila bi.

3- 20 euro eta txakolin botila bi.

Aurkeztu eta sari barik geratu diren guztiei txakolin botila bana emango zaie. Kazolak eguerdiko 14:00etan aurkeztuko dira.

Arratsaldeko 17:00etan, mus txapelketa

SARIAK

1- 150 euro, txapelak eta xanpain botila bi.

2- 100 euro, eta xanpain botila bi.

3- 50 euro eta xanpain botila bi.

4- 40 euro eta xanpain botila bi.

Parte hartzeko, bikoteko 10 euro jarriko dira.

Bikoteari errifarako bi txartel emango zaizkio.

Arratsaldeko 19:00etan karabinaz tiro txapelketa. Lehen kanporaketa. Bost tiratzailek onenak asteazken arratsaldeko finalerako sailkatuko dira.

Parte hartzeko euro bat jarriko da, eta errifarako txartela emango zaio.

Iluntzeko 20:30ean erromeria

Ansorregi, Larrañaga eta Lutxurdiorekin.

Gaueko 21:00etan HERRI AFARIA

Gaueko 23:00etatik aurrera erromeriak jarraituko du.

ABUZTUAK 6, eguaztena

Eguerdiko 12:00etan meza

Meza ostean, ohi denez **aurrekua eta atzeskua** dantzatuko dira.

Eguerdiko 13:00etan igel txapelketa

SARIAK

1- 40 euro eta txakolin kutxa .

2- 20 euro eta txakolin botila bi.

3- 10 euro eta txakolin botila bi.

Parte hartzeko euro bat ordainduko da, eta errifarako txartela emango zaie.

13:00 aldera, Jai Batzordearen txosnan, **karramarroak banatuko dira**.

Goizean paella txapelketa.

Paella-ontziak eguerdiko 14:00etan aurkezteko dira.

SARIAK

1- 75 euro eta txakolin kutxa.

2- 50 euro eta txakolin kutxa.

Partaideei errifarako txartel bat emango zaie, eta bazkaltzera jaigunean geratzen direnei erreserbako ardo botila emango diegu izakinak amaitu arte.

Goizean, Lander eta Ainize trikitilariak izango ditugu jaigunea alaitzen.

Arratsaldeko 17:00etan, briska txapelketa

SARIAK

1- 120 euro garaikurrak eta xanpain botila bana.

2- 70 euro eta xanpain botila bana.

3- 50 euro eta xanpain botila bana.

4- 30 euro eta xanpain botila bana.

Parte hartzeko, bikoteko 8 euro. Partaideei errifarako txartela emango zaie.

Arratsaldeko 17:00etan,

umeen jolasak jokoak denentzat, sariak denentzat.

Jolasen ostean, Basajaunaren sekretua umeentzat eta nagusientzat, ipuinak eta kantak, Doro Zobaran-ekin, baselizan.

Arratsaldeko 06:30ean, karabinaz tiro bigarren kanporaketa. Lehen bost sailkatuek finalerako txartela jasoko dute.

Parte-hartzaileek euro bana jarriko dute, eta errifarako txartela emango zaie.

Kanporaketak amaitu ostean, txapelketako finala

jokatuko da lehen 10 sailkatuekin. Irabazleak saritatz karabina eskuratuko du.

Iluntzeko 20:00etan kantuan Doro Zobaran lagun hartuta. Kanten letrak bertan banatuko ditugu.

Gaueko 20:30ean, Erromeria,

Ansorregi, Laja eta Larrañagarekin.

Gaueko 21:00etan, bertso afaria

Amaia Agirre eta Maialen Lujanbiorekin.

Kantuek ere lekua izango dute bertsoen artean.

Afariostean erromeriak jarraituko du goizaldera arte.

Goizaldeko 01:00etan jaien aldeko **errifaren zozketa**.

Goizaldeko 02:00 etan, txapliguekin, **jaiei amaiera** emango zaie.

ARGAZKI ERAKUSKETA.

Igandean eta Salbadore egunean auzoko hainbat argazki jarriko dira ikusgai. Hamabi Harrik aurten egindako ekitaldietan ateratako argazkiak ere ikusi ahal izango dira.

Oharrak

- Aurten jaien aldeko errifa atera da eta txosnan egongo da salgai.
- Jai Batzordea ez da jaietan gerta daitezkeen ezbeharen erantzule egingo.
- Aurtengo jaietan ere, txosnan kamisetak egongo dira salgai!
- Bertso afaria 15€ izango da eta izena eman beharko da aldez aurretik, 626 945 623. (Kepa)

ETXE LAGUNTZAILEAK

ABADIÑOKO UDALA, GESTAMP BIZKAIA, MAHATS fruta denda, URTIAGA Iturgintza, ETXETXO Inmobiliaria, DIBA Kooperatiba, EROSKI Abadiño, NORIKA Karabinak, SERAFIN Tailerrak S. Koop, EGUZKI Elektrizitate etxea, EUSKO LABEL, ALKI dekorazio etxea, MURUETA Baseria Nekazalturismoa, RINCON elektrizitatea, ARTALAR negutegiak eta EDURNE arrandegia.

“EAJri interesatzen zaionean, beragaz fidatu behar dugu?”

Bilduk prentsaurrekoa eman du, joan zen astean EAJk turismo arloaz esandakoari erantzuteko

DURANGALDEA M. Onaindia EAJk Bildu kritikatu zuen joan zen astean, Amankomunazgoan turismo arloko eskumena hartzearen aurrean ez ei duelako proposamenik. Horri erantzuteko, prentsaurrekoa eman zuen Bilduk eguaztenean, Zaldibarrren. Duela hiru urte, Amankomunazgoko agintea hartzean gertatutakoa gogoratu zuen: “Lehendakaritza lortzeko trankak erabili zituen EAJk”. Hauteskundeetan Bildu izan zen garaile hamahiru ordezkariagaz, eta EAJk hamaika lortu zituen. Baina Abadiñoako Independentek jeltzaleei eman zizkieten lortutako aulki biak. Geroztik,

PSE-EEren ordezkari bakarraz gaz batera gobernatu du EAJk. Bilduk ez daki zein den EAJren turismo plan zehatza: “Orain, EAJri interesatzen zaionean, beragaz fidatu behar dugu?”. Bilduk azaldu du, Espainiako erreforma batek eraginda, mankomunitateek estatutuak aldatu behar zituztela urtarritetik ekainera, desagertu gura ez bazuten. Ekainean, Bizkaiko Foru Aldundiak arau bat sortu zuen aldaketak saihesteko. Baina EAJgaz arau hori sortu baino egun bi beranduago batzartu ziren; beraz, “berandu eta presaka” ibiltzea egotzi die jeltzaleei. Gainera, orain arte mankomunitate gisa



Bilduko zenbait alkate eta zinegotzi, Zaldibarreko liburutegi zaharrean.

ikuspegirik ez duela eduki uste du Bilduk, eta Elorrioko igerilekuak ipini ditu adibidetzat.

Turismoa lantzekotan, Urkiola Landa Garapenetik egitea hobesten du Bilduk, estatutuek aukera hori jasotzen dute eta.

Herri txikien eta handien arteko interes talka ere islatu zuen: “Durangok eta Elorriok garatu dute turismoa, eta eurek dute interes gehien”. Bilduren ustez, hausnarketa egitea beharrezkoa da: “presa barik eta patxadaz”.

Jabi Ugalde eta Josu Novo omendu dituzte

Bizidun elkarteak urte amaierako ekitaldia egin du

DURANGALDEA M.O. Bizidun nagusi aktiboen elkar-teak Jabi Ugalde omendu zuen ikasturte amaierako ekitaldian, elkarteko sortzaile eta lehendakari izateagatik. Oroigarri bat entregatu zioten Ugalderi, eta ohorezko lehendakari ere izen-

datu zuten. Ekitaldian Oskar Zarrabeitia Amankomunazgoko presidentek eta Goiztidi Diaz Durangoko alkateordeak hartu zuten parte.

Gainera, Josu Novo psikologoa *Bizi-lagun* izendatu zuten, urteotan egindako lanagatik.



Jabi Ugalde, oroigarria jasotzeko ekitaldian.

Zazpi langile kontratatzeke diru-laguntzak banatuko dituzte

DURANGALDEA J. Derteano Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuak 151.057 euro bideratu ditu Durangaldeak enplegua sortzeko aurkeztu duen plana sustatzera. Durangaldeko Amankomunazgoko ordezkarien esanetan, horietako 37.000 euro langileak kontratatu gura dituzten enpresen artean banatuko dituzte. Kontratuak gutxienez hiru hilbatekoak izango dira. Baldintzetako bat da enpresa horiek zein langileak Abadiño, Atxondo, Berriz, Elorrio, Garai, Iurreta, Izurtza, Mañari edo Zaldibarkoak izatea. Laguntzak 3.000 eurotik 9.000 eurora artekoak izango dira. Eskuerak Elorrioko Erregistro Orokorrean aurkeztu behar dira urriaren 17a baino lehen. Bestalde, gainerako 113.000 euroekin sei programa garatzen dabilta.

Lurraldebusen Durangaldeko geroalekuak kenduko dituzte

DURANGALDEA M.O. Debagoiena eskualdea Bilbogaz lotzen duen linean Durangaldeko geltokiak kentzeko asmoa dauka Gipuzkoako Foru Aldundiak. Gipuzkoan autobus lineen inguruan egindako parte-hartze prozesu baten ostean etorri da erabakia. EAJk ohar bidez kritikatu du erabakia, eta alegazioak aurkeztu ditu. EH Bilduri zuzendu zaio oharrean: “Defenda ditzala eskualdeko herritarren zerbitzuak, berak gobernatzen ez dituen erakundeekin beste batzuetan egin duen legez”.

EAJri “alderdikieriaz eta manipulazioaren bidetik” aritzea egotzi dio EH Bilduk. Durangon, alegazioa aurkezteko proposamenaren alde bozkatu zuela azaldu du koalizioak: “Erabiltzaileen alde modu bateratuan lan egiteko konpromisoa dugu”.

SEI HANKAKO MAHAIA

JUAN JOSE GAZTAÑAZATORRE
PP



Irakaskuntza

Helduen irakaskuntza etengabea lan merkatuan sartzeko azken aukera da talde askorentzat. Irakaskuntza mota hori ez da nahitaezkoa, baina berebiziko garrantzia du langabetuen, helduen eta atzerri-tarren artean. Eusko Jaurlaritzak guztiz desagerrarazi nahi zuen aukera hori; izan ere, joan zen maiatzean Durangoko Helduen Hezkuntzako Ikastetxean gaur egungo lantaldearen ia %40ko murrizketa iragarri zuen.

PPk bereziki larritzat jo du erabaki hori, Hezkuntza Sailak langileen eta baliabideen kontura aurreztu nahi izan duelako, oinarritzkoa den hezkuntza eskubidearen kaltetan. Kalitatezko hezkuntza guztiontzat. Horrek izan behar du premisa.

Gasteizko gobernuaren berehalako zuzenketa eskatu dugu hasieratik, uste dugulako horrelako ebazpenek batez ere baliabide gutxien dituztenei eragiten dieten oinarritzko eskubideak jartzen dituztela estutasunean.

Ia 30 urteko ibilbidean, Durangoko HHIK milaka ikasle hartu ditu, eta, titulazio bat eskuratzeko aukera ez ezik, erretiroa hartu ondoren ikasketekin jarraitzeko aukera ere eskaini die. Gainera, atzerriko ikasleak alfabetatzen ere lan handia egin du.

Egindako lana ezin da eze-rezean gelditu. Horregatik, Eusko Jaurlaritzak egindako ebazpena berehala atzera botatzeko eta lanpostu guztiak mantentzeko eskatzen duen mozio bat aurkeztu dugu; zorronez, mozioak harrera ona izan du oposizioko taldeen artean. Albiste ona, horrela gure hainbat bizilagunen oraina eta geroa ziurtatuko baitugu.



Bertako okela · Aurretiaz prestatutako janariak



Biomasa gaz berotu gura dituzte eskola eta kiroldegia

Udalak hitzarmena berritu du EEEgaz eta HAZIgaz



Eguazteneko osoko bilkuran onartu zuten hitzarmena berritzea.

BERRIZ Amaia Ugalde Berrizko basoak garbitzerakoan moztutako enborkiekin biomasa egiteko egitasmoa aurrera doa. Eskolako eta kiroldegiko berogailuentzat ipini gura dute biomasa galdategia. Berrizko Udalak duela urtebete sinatu zuen egitasmoagaz hasteko hitzarmena HAZI fundazioagaz eta EEE Energiaren Euskal Erakundeagaz. Asteon hitzarmena berritu dute, eta hurrengo betebeharrak zeintzuk izango diren zehaztu dituzte. Biomasa instalazioa 2015ean ipiniko dute.

Azpiegitura energia zerbitzu enpresa batek ipiniko du. 2015 hasieran kontratua esleitzeko

prozedura hasi gura dutela azaldu du Orland Isoird alkateak.

Berrizko basoak

Osoko bilkuran alderdi guztiek egin dute hitzarmena berritzearen alde. EEEren eta HAZIren lan erritmoak markatuko du orain prozesua. EEEk energia efizientzia eta biomasa sistema ezartzearen diagnosi bat eratuko du, eta HAZIk herriko basoen baso-masa neurtuko du, gero plangintza egin ahal izateko. Alkateak bertako materiala erabiltzeak daukan garrantzia nabarmendu du: "Gure basoak erabili gura ditugu, kanpoko enpresen menpe ibili beharrean".

V. rock musika jaialdia egingo dute Goierriko jaietan, gaur

ZALDIBAR Itsaso Esteban

Atzo iluntzean hasi zituzten Goierri auzoko jaiak, txapliguak jaurtita eta Donien Atxa ipinita. Eta gaur iluntzerako ere badago plana: bosgarren urtez ospatuko dute, esaterako, Goerri Rock musika jaialdia. Damu Dot, Rolling Stones taldearen kanta jotzen dituen Monkday, eta Parabellum taldeen bertsioak egiten dituen talde bat ariko dira bertan. Jaialdiaren aurretik, sardina-jana, 20:00etan, eta triki-kantu-poteoa, 21:00etan, ere programatu dituzte gaurko. 23:00etan, berriz, bolo-jokoa izango da.

Jaietan jarraituko dute zapa-tuan eta domekan ere, Goierri. Bihar, 11:30etik aurrera ariko dira parte-hartzaileak bakailao eta paella txapelketetara aurkeztuko dituzten lapikoen prestaketan; 14:00etan aurkeztuko dituzte lapikoak. Lehiaketa gastronomikoen ostean, herri bazkaria, umeentzako antzerkia, Lotxo taldearen erromeria eta bolo txapelketa izango dituzte, besteak beste, Goierri hurreratzen direnek.

Ohi bezala, trakagaz emango diete jaiei amaiera, domekan, 22:00etan. Aurretik, auzokide nagusiei omenaldia egingo diete 13:00etan, eta, ondoren, Zaldibarko umeen dantza taldeak emanaldia eskainiko du. Arratsaldean, 18:00etan asto-probak egingo dituzte, eta argazki proiektzioa egingo dute, ohi bezala, jaiak amaitutzat eman orduko, 21:30ean.

Txakur gorotzak batzeko zortzi edukiontzi ipini dituzte

ATXONDO J. Derteano

Txakur gorotzak botatzeko zortzi ontzi ipini ditu udalak. Lau herrigunean kokatu dituzte, eta beste laurak auzoetan eta inguruetan: Axpen, Arrazolan, Santiagon eta Topen. Hainbat herritarren kexak jaso ostean hartu dute erabakia.

Azken urteetan herriko txakurren jabe kopurua hazi egin da, eta, horregaz batera, baita herriko kaleetan zein berdeguneetan agertu den txakur gorotz kopurua ere. Herritarren kexak jaso ditu udalak, espaloietan zein bidegorrian dabilzan paseatzaileenak eta berdegunee-

Axpen, Topen eta Arrazolan ontzi bana dago; Santiagokoa, berriz, ostu egin dute

tan gorotzak aurkitzen dituzten umeen gurasoenak, esaterako. Egoera aztertu ostean, gorotzak batzeko ontziak ipintzea erabaki dute. Batek ez du asko iraun, Santiagon zegoena ostu egin dutelako. Gorotzak batzeko plastikoak ere ontzietan bertan daude eskuragarri. Txakurren jabeek "errespetuz jokatzeko" eskatu die Rosa Elizburu alkateak, "herritarren ongizatea" bermatzeko. "Gehienek errespetuz jokatzeko dute, baina gutxi batzuen jokabide okerra nahikoa da kaleko gorotz kopurua handitzeko".

> DURANGALDEA ASTEON

Edu Barinaga ETBko zuzendari

HEDABIDEAK Edu Barinaga izango da Pello Sarasolaren lekukoa hartuko duena ETBren gidaritzan. Telebista, zinema eta animazio arloan ibilbide oparoa egin du Barinagak. Urte batzuetan Eusko Jaur-laritzako ikus-entzunezkoen arduradun kargua bete zuen. Durangoko Baleuko ekoizte-txearen sortzailea da.

AHTaren aurkako bizikleta martxa

AHT Mugitu! mugimenduaren bizikleta martxa Durangoko Andra Marian abiatuko da, uztailaren 25ean, 12:30ean. Abadiño, Atxondo eta Elorrio zeharkatuko dituzte bizikletariak. 21:00etan, mahai inguruan batuko dira Atxondoko gaztetxean. Uztailaren 26an Zornotzara bidea egingo dute.

Lapurreta metodo berria Zornotzan

LAPURRETAK Udaltzaingoaren esanetan, bizilekuetako atean pieza txiki garden bat jartzen dute lapurrek, eta, atea zabaltzen denean, pieza hori erori egiten da. Horrela lapurrek badakite barrura inor sartu den ala ez. Udaltzainek etxeetako atean ikuskatuko dituzte, eta herritarrei gauza bera egiteko eskatu diete.

Iritzia

ASMO ONEKIN BAKARRIK EZ GOAZ INORA

Lau urte pasa dira Durangoko Udalak euskararen udal araudia onartu zuenetik. Gure ustez, egokiena ez den arren, denbora honetan, bertan azaltzen dena ere ez da bete. Idatziz herritarren hizkuntza eskubideak onartzen dituen arren, gero praktikan errealtatea bestelakoa da. Horren ondorioz, Udalak eta biok euskaraz dinamika martxan jarri genuen, eta hainbat herritarrek beraien eskaera udalera bideratu zuten, udalarekin harreman oro euskaraz izateko asmoz.

Eta azkenean jaso dugu erantzuna! Lau hilabete luze igarota, pare bat mobilizazio tartean, alkateari gutun bat helarazi ostean... erantzun digute!

Alde batetik, euskaldunok euskaraz bizitzeko dugun eskubidea aitortu, eta horretarako bitartekoak jartzeko borondatea agertu dute. Baina, beste alde batetik, aitzakia ugari jartzen dituzte, hori gaur bertan ez bermatzeko. Gure ustez, boron-

datearekin herritarren nahia erraz bete dezake.

Ez da ahaztu behar gure eskaera zehatzetan, musika eskolan, zahar etxean, Durango kirolak, Pinondo Etxean... zerbitzua eta arreta euskaraz bermatu dadin eskatu genuela, eta horren aurrean isiltasuna da udalaren jokabidea. Eskaera tramitatu zuten herritar batzuekin hitz eginda, erantzuna ikustean harridura eta haserre puntu bat sumatu dugu.

Guk Durango euskalduna eraikitze lanean jarraituko dugu, eta prest gaude bide horretan mundu guztiarekin elkar-lanean aritzeko. Euskaraz bizitzeko hautua indartuz eta herritarren aktibazioan urratsak emanez lortuko dugu! Ez gara espaloitik jaitsiko! Euskaraz bizi!

Durangoko EHE

Maialen Bildosola, Ane Zarate, Aritz Bravo, Endika Blanco, Koldo Zarate

FRACKINGA DEBEKATZEKO SINADURA BILKETA, IRAILAREN 14RA ARTE

Frackinga debekatzeko legea egiteko kanpainak aurrera jarraitzen du, baita Durangaldean ere. Legebiltzarrean sinadurak jasotzeko epearen luzapena eskatu dugu, eta onartu egin digute, eta irailaren 14an bukatuko da sinadurak jasotzeko epea. Jakina da jada 30.000 lortu ditugula autonomia erkidego osoan. Ez da gauza bera, oster, justu-justu kopuru horretara heltzea edo askogatik zenbaki hori gainditzea. Beraz, uda sasoiaren egin dezakegun azken esfortzua garrantzitsua da, babesa ahalik eta handiena izateko.

Gasa ustiatzeko haustura hidraulikoa edo frackinga debekatzeko alde gero eta masa kritikoa handiagoa egin gura dugu, momentua heltzen denean oposizio soziala ahalik eta indartsuena izateko. Iritzi publikoa irabazten ari bagara ere, badugu erronka garrantzitsua jendartearen nahi hori arlo politikora eramateko.

Alderdi politiko gehienek, eskumenak dituzten erakundeetan, frackingaren aldeko apustua egiten jarraitzen dute, pertsonen osasunerako eta ingurumena-arentzat kaltegarria eta arriskutsua dela jakin arren. Legebiltzarreko jardunaz gain, gertuko esparru honetan, Durangaldeko plataformak mozioak aurkeztuko ditu eskualdeko udaletxe guztietan datorren ikasturtearekin batera.

Bukatzeke, deialdi zabala egin gura dugu parte hartzeko. Bileretara etorri nahi izanez gero, idatzi e-maila frackinge@durangaldea@gmail.com helbidera. Eta etorri ezin direnentzat ere badugu parte hartzeko beste modu bat, erraza eta arina: atara argazkia oporretan Fracking EZ! banderolarekin edo kamisetarekin, eta bidali goiko helbidera.

Fracking EZ! Durangaldea

Garazi Azkarate



astekaria@anboto.org
astearte 17:00ak arteko epea

Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbidea: Bixente Kapanaga 9, 48215
• Izen-abizenak • telefonoa • helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia
-DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO-

Alderdi, elkarte edo taldeko iritzia kide baten izenean sinatuta eta ANBOTOren irizpidean jarraituz zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1500 karaktere baino gehiago izan (tarteak barne).

Berbaz**Erlantz Zelaieta eta Ibon Ordoñez** | AMR Motos enpresaren sortzaileak | Zornotza, 1988

“Motorrak konpontzeaz gainera, zaharberritu eta fabrikatu egiten ditugu”

Zornotzako AMR Motos enpresak Jaurlaritzaren Urrats Bat saria jaso du

> BERBAZ Jone Guenetxea

Ideiaz betetako bi ekintzaile zornotzarrek sortutako proiektua da AMR Motos. Otsailean, Biarritz industrialdean zabaldu zuten motor tailerra ez dute konponketara soilik bideratu. Motor zaharrak berriztu eta edozein modelo sortzeko gaitasuna dute. Proiektu honengaz Eusko Jaurlaritzaren Urrats Bat sariko epaimahaia konbentzitu dute Zelaietak eta Ordoñezek. Proiektua hazten dabil, gainera. Harley Davidson markako motarrak saltzea edo lasterketarako taldea sortzea dira buruan dituzten hurrengo erronkak.

Enpresa sortzea zelan bururatu zaizue?

Ibon Ordoñez: Zornotzan ez zegoen mota honetako enpresarik, eta guk geuk zabaltea bururatu zitzaigun. Aurretik, beste tailer bat zegoen industriagune honetan. Ondo zebilen, baina itxi egin zuten.

Proiektua martxan jartzeko laguntzarik izan duzue?

I.O.: Bizkaiko Foru Aldundia- ren gazte ekintzaileei zuzendutako laguntza eta inbertsiorako laguntza jaso ditugu. Era berean, Iurretako institutuak gai burokratikoetan lagundu digu, eta Aldundiko laguntza horiek jasotzeko enpresa proiektua egiten ere lagundu digu.

Ibilbide honetan zer izan da zailena?

Erlantz Zelaieta: Burokrazia aldetik gauza guztiak zelan luzatzen diren harrigarria da. Paper bat jasotzeko hilabeteak pasatu daitezke.

Otsailaren 15ean zabaldu zenuen enpresa. Zelako harrera izan du?

I.O.: Jendea motorren tailer bat noiz irekiko zain zegoen, ez zegoelako besterik inguruan.

E.Z.: Harrera ona izan du, eta jendea hasi da etortzen.

Eusko Jaurlaritzaren Urrats Bat saria jaso duzue. Esker oneko sari bat al da?

I.O.: EAEn enpresak sortzeko Urrats Bat programa bultzatzen

du Eusko Jaurlaritzak. Epaimahai baten aurrera joan behar duzu zure proiektua aurkeztera. Izan dituzun zailtasunak eta indarguneak zeintzuk izan diren azaldu behar duzu bertan.

Saria jasotzea itxaroten zenuen?

E.Z.: Ibon, aurkezpenetik irabaziko gurela esaten etorri zinen.

I.O.: Irabaziko nuela esanez joan nintzen epaimahaiaren aurrera; bestela, zertarako joan?

E.Z.: Gure webgunea, www.amrmotos.com, erakutsi zien, eta guk egiten duguna azaldu zien epaimahaikideei. Errealitate zein den azaldu zien, gorbatarik eta aurkezpen handirik barik.

AMR motorren tailer bat baino gehiago da. Zertan diharduzue?

I.O.: Motorrak konpontzeaz gainera, zaharberritze lanetan eta fabrikazioan dihardugu. Xasisetik hasita, zuntzak, tornua... ditugu. Ez diogu ezeri ezetzirik esaten. Eta lasterketen munduan ere esperientzia dugu.

Motor bereziak dituzue tailerrean. Historia handiko sidekar bat duzue tartean.

I.O.: Lan hori enpresa zabaldu orduko genuen hemen. Lagun batek motor hori zeukan, eta konpontzea gura zuen.

E.Z.: II. Mundu Gerrako sidekar bat da. Errusiatik ekarrita dago, eta originalak metraileta bat du. Instalazio elektriko oso konplexua dauka, eta inork ez zion konpontzen. Motorra 1939koa da.

“*Laister Harley Davidson originalak ekartzen hasteko asmoa dugu*”

“*Angel Nietoren Derby Ran motorraren erreplika bat sortu dugu*”

Dena oso berezia da, eta adi ibili beharra dago, ezer ez apurtzeko. Ordezko piezarik ez daukanez, zerbait apurtuz gero, berria egin behar da. Pieza asko motorrarentzat fabrikatu ditugu. Orain homologatzeko zain dago, bestela, ezin da kalera atera.

Motor modelo zaharrak ere fabrikatzen dituzue.

E.Z.: Angel Nietoren Derby Ran motorraren erreplika egin dugu. Plano batzuetatik neurriak hartu ditugu, eta motorra osatzen ibili gara. Internet bidez Murtziako (Espainia) bati saldu diogu. Galizian zegoen, eta ea motorra ikustera etorri zitekeen galdetu zigun. Hegazkina hartu zuen Madrilera (Espainia), eta handik hona etorri zen. Ikusi eta gero, erostea erabaki zuen.

Hasiberriak zarete, baina etorkizunean zabalkunderako aukerarik ikusten duzue?

I.O.: Bai, laster Harley Davidson originalak Kaliforniatik (AEB), Ciencinatik ekartzen hasteko asmoa dugu. Beste erosle batzuekin batera kontainer batean ekartzeko asmoa dugu, homologatu eta gero saltzeko.

I.O.: Lasterketa talde bat sortzea ere pentsatu dugu, baina aurrean ez da posible izan. Ea datorren urtean sortu dezakegun.

Zer formakuntza eta lan esperientzia duzue?

E.Z.: Automozioa ikasi genuen Iurretako institutuan, orain zazpi urte. Ondoren, beste tailer batean ibili izan naiz lanean.

I.O.: Alemaniara joan nintzen praktikak egitera, eta, gero, Bartzelonara joan nintzen lehiaketetako mekanika ikastera. Orain bi urte itzuli nintzen Durangaldera. Iaz lasterketetan dabilen talde baten laguntza lanetan jardun genuen.

Kantauriko eta Mediterraneoko gonbidatuak datoz uztailaren 26an Durangon Folk jaialdira

Grup Mediterrània eta El Piñote dantza taldeak ariko dira Kriskitinegaz

> DANTZA Itsaso Esteban Durangoko Kriskitin dantza taldearen eskutik, nazioarteko folklore emanaldia izango da uztailaren 26an, 22:00etan, Durangoko Andra Mariko elizpean. Mediterraneo eta Kantauri aldeko gonbidatuak dakartza Kriskitinek Durangora, Uda Kalean Bizi kultura programazio barruan: Kataluniako Grup Mediterrània taldea eta Asturiasko El Piñote. Doakoa izango da uztailaren 26ko saio hori, eta antolatzaileek aulkiak ipiniko dituzte nahi duenak eserita goza dezan emanaldia.

Euskal Herriko, Kataluniako eta Asturiasko dantzak izango dira Kristina Mardarasek aurkeztuko duen jaialdi horretan gozagai. Kriskitineko antolatzaileek azpimarratu dutenez, folklorearekiko zaletasuna ez ezik, hizkuntzekiko ardura ere partekatzen dute jaialdiko hiru parte-hartzaileek: euskararen, katalanaren eta asturieraren erabilizaile, zaintzaile eta bul-tzatzaile dira hiru taldeak.

Trukean dihardute Kriskitinek, Grup Mediterraniak eta

El Piñotek: Kriskitineko dantzariak ekainean egin zieten Asturiasko Pola de Sierokoei bisita, eta haiek datoz oraingoan Durangora, euren kultura ezagutaraztera. Azaldu dutenez, datorren urtean Kataluniara joateko asmoa ere badaukate Kriskitineko durangarrek.

Herrialde Katalanetako dantzak ezagutarazteko helburuz sortu zuten Grup Mediterrània

1978an sortu zutenetik, 1.000 emanaldi baino gehiago eskaini ditu El Piñote dantza taldeak

Esbert Sant Cugat taldetik 1995ean sorturiko taldea da Grup Mediterrània. Salvador Mello koreografoaren dantzak berreskuratzeko, eta Herrialde

Katalanetako dantzak ezagutarazteko helburuz sortu zuten taldea Sant Cugat del Vallés herrian. Jantzi tradizionalak eta koreografiak berreskuratzeko lanean dihardute ordutik hona. Gainera, musika garaikidea eta koreografia berritzaileak tradizioagaz uztartzen dituzte.

1978an sorturiko taldea da, aldiz, Pola de Siero herri asturiarreko El Piñote. 14 eta 50 urte arteko musikariek eta dantzariak osatzen dute taldea, eta umeen taldeak ere badaukate. Mila emanaldi baino gehiago eskaini dituzte taldea sortu zutenetik.

Hamabost urtez

1999. urtean ekin zion Kriskitin taldeak Durangoko lehenengo folk jaialdia antolatzeari. Galeusca izena eman zioten lehenengo urteetan folklore jaialdiari. Harrezkero, hamalau urteotan folklore emanaldi bina ekarri izan dituzte urtean Durangora. Beste askoren artean, Galizia, Gaztela, Menorca, Andaluzia, Aragoi, Txina, Kuba eta Kroaziako dantzak izan dira azken urteotan ikusgai.



Grup Mediterrània (Sant Cugat del Vallés).



El Piñote (Pola de Siero).



Kriskitin (Durango).

> DANTZA

Gesc Gelabert koreografo kataluniarra eta Errenteriako Kukai dantza taldea elkartzen dituen proiektua aurkeztuko dute uztailaren 20an, 20:30ean, Durangoko Ezkurdi plazan. Aretotik kanpo eskaintzeko San Agustin kulturguneak antolatzen duen Uda Kalean Bizi programazioaren barruko emanaldia izango da etzikoa.

Euskal Herrian ekoitziriko kale ikuskizunik onenaren saria jaso dute Leioako Umore Azokan

Gelajauziak izenburua du ikuskizunak, eta udaberrian aurkeztu zuten: Leioako Umore Azokan estreinatu zuten obra, eta, hain zuzen, Euskal Herrian ekoitziriko kale ikuskizunik onenaren saria jaso zuten jaialdi hartan.

Jon Maya koreografoa da obraren zuzendaria, eta Kukai taldeko bost dantzari hartzen

Dantza tradizionallean oinarrituriko Kukai eta Cesc Gelabert-en sorkuntza garaikidea

‘Gelajauziak’ izenburuko obra eskainiko du Kukai dantza talde gipuzkoarrak, etzi, Durangon



Kukai taldeko bost dantzari dihardute oholtzan, ‘Gelajauziak’ ikuskizunean.

dute parte: Urko Mitxelenak, Alain Mayak, Eneko Gilek, Ibon Huartek eta Jon Mayak. Sabin Bikandik eta Xabier Erkiziak propio sorturiko musika dauka, gainera, ikuskizunak.

Beste lan batzuetan egin izan duen eran, Euskal Herriko dantza tradizionalaren gaineko begirada berritzailea ematen du Kukai taldeak *Gelajauziak* obran. Dantza tradi-

zionalaren espazio naturalean, plazan emateko moldaturiko obra da, gainera. Eta arrakasta handiz erakutsi dute, dagoeneko, Euskal Herriko zein Espainiako hainbat plazatan.

Hil berri den Nestor Basterretxea artistak *Akelarre* izeneko eskultura lanagaz kolaboratu zuen Kukaigaz: eskulturaren bueltan eskaintzen dute dantzariak emanaldia.

Eneko Arruzak jaso zuen Enrike Renteria lehiaketako sari nagusia

Joan zen domekan garatu zuten, Zornotzan, kaleko XVII. margo lehiaketa

> PINTURA Itsaso Esteban Ispasterko Eneko Arruza margolariari eman zioten, joan zen domekan, Zornotzan egin zuten Enrike Renteria margo lehiaketako 500 euroko sari nagusia. Herriguneko taberna baten terraza eta ondoko lonja agertzen dira lehenengo saria jaso duen Arruzaren koadroan. Arruzarenagaz batera, beste 28 obra aurkeztu zituzten parte-hartzaileek XVII. Enrike Renteria lehiaketara, den-denak egun horretan Zornotzan margoturikoak.

Zornotzako SACZ elkarteak antolatzen duen lehiaketako bigarren saria Eduardo Alsua gasteiztarrek jaso zuen (400 euro), eta Juan Berrozpe donostiarrek hirugarrena (350 eurokoa). Bestalde, Alberto Garciari eman zioten aurten lehenengoz banatu duten herriko margolan onenaren 200 euroko saria.

14 urtera artekoen sailean, Maialen Alvarezek jaso zuen lehenengo saria. Lehiaketa honen omentzen duten Enrike Renteria pintorearen birbiloba da Alvarez. Yurena Hazasek jaso zuen umeen bigarren saria, eta Maialen Ruizek hirugarrena.

Bestetik, joan zen domekan herriko balkoietan egon ziren ikusgai Zintzilik lehiaketan parte hartu zuten artisten margolanak. Andere Etxegarai, Alberto García, Martzel Do Nacimiento eta Juan Jose Imaz saritu dituzte aurten.



Guztira, 29 koadro aurkeztu dituzte lehiaketara.

Generaciones arte saria jaso du Karlos B. Martinezek

‘Textile from exile’ proiektua gauzatuko du sariagaz



> ARTEA

Artista gazteek aurkeztu dituzten 650 proiektuetatik hamar aukeratu dituzte Caja Madrid fundazioak antolatzen duen Generaciones lehiaketan. Karlos B. Martínez durangarrarena izan da aukeratutakoetako bat, eta 12.000 euroko saria eskuratu du *Textile from exile* izenburuko proiektua gauzatzeko. Otsailean Madrilgo La Casa Encendida aretoan aurkeztuko du lana.

Alemaniko 1920ko hamarkadako Bauhaus eskolaren eta Marokon ehungintzan lan egin duten emakumeen inguruko lana sortu gura du Martinezek. Euren eskulanak merkaturatzeko kooperatiba txikietan elkartzen ari diren Marokoko Atlas inguruko emakume alfon-

bragileen istorioa hartuko du lana abiatzeko oinarri: “Bi sa-soitan antzeko materialagaz eta sentsibilitateagaz diharduten errealitate bi erakustea da daukadan asmoa”, kontatu du artistak. Besteak beste, generoaren gaia landuko du izaera sozialeko proiektu artistikoan. Ideiaren emaitza, eta hartuko duen forma zein izango den zehaztu barrik dauka Martinezek oraindik, baina badabil adierazpide garai-kide aproposaren bila.

Bilbao Arteren beka

Austrian proiektu artistiko bat lantzeko Bilbao Arte ematen duen beka ere jaso berri du Karlos B. Martinezek. Herrialde horretan beste proiektu bat gauzatuko du irailean eta urrian. “Eskultura ere izango den film bat” egin nahi du, “denboragaz eta espazioagaz jolastuta”. Pozik joango da Austriara, zinema esperimentalaren eta arte garai-kidearen gune inportanteetako bat delako.

Tabira Musika Bandak saioa eskainiko du Madalenen

> MUSIKA

Uztailaren 22an, Madalena egunez, emanaldia eskainiko du Tabira Musika Bandak Durangoko Madalena auzoan. Plateruen plazan izango da emanaldia, 19:00etan, eta, musikaz gainera, dantza ere izango da kontzertu horretan gozagai: Bego Lauzika eta Isidro Juantorena dantzariak areto dantzak eskainiko dituzte kontzertuak irauten duen bitartean. Ohi bezala, entzuleei kantatzeko gonbita egingo die Tabira Musika Bandak, eta dantzarako aukera ere izango du gura duenak.

Musika bandaren arduradunek esan dutenez, besteak beste, *Kaixo Durango*, *La Cumparsita*, *Xalbadorren heriotzean*, *Suspiros de España*, *De Atxuri al Arenal* eta *El barrio Madalena* kanta ezagunekin osatuko dute errepertorioa, esaterako.

‘Joxean’s Hileben’ emango dute Plateruenean, gaur, 20:00etan

> ZINEMA

Ataun of the dead trilogiaren bigarren partea da *Joxean’s Hileben*: Durangoko Plateruenean aurkeztuko dute, gaur, 20:00etan. Xabier Padin eta Beñat Iturriozena dira filmaren ideia eta gidioia, eta eurak dira zuzendariak.

Plateruenean ikusgai izango den *Joxean’s Hileben* filmaren sinopsian azaltzen denez, “XIX. mendean hildako Jon Tomas eta Josu-Jon Tomas soldadu karlistak lurpetik atera eta berpiztu egingo dira”, trilogiaren bigarren ale honetan.

Egileen berbetan, aurreko filmagaz alderaturik, jauzi kualitatiboa eman dute *Joxean’s Hileben* filmagaz: “Jende gehiagok parte hartu du film honetan, eta profesionalagoa da”.

GEURE DURANGALDEA

MIKEL ONANDIA

Arte historialaria



Troyatik Madrilera, Zumaiaetik pasatuta

Laokoonte Troyako egurrezko zaldia erretzen saiatu zenean, itsasoko suge erraldoiek bere semei erasotu zieten, eta, hilko zela jakin arren, haiek salbatzera abiatuak, denak izan ziren irentsiak. Beste artista askok legez, kontakizun mitologiko ospetsua inspirazio iturri izan zuen Domenicos Theotokopoulos kretarrak *Laokoonte* (1609) margolanean.

Sugeek inguratu pertsonaiak eskortzo indartsuek deformatuta eta kutsu espektralak argiztatuta ageri dira Grecoren lan jenialean; atzean zaldia dago, ez Troyan, pintura gauzatu zuen Toledo hiriaren aurrean baizik. Aitzitik, bere garaian, Espainian bigarren mailara baztertua, XIX. mendera arte ez zen artista modernoengatik berreskuratua izan Greco, batez ere Ignazio Zuloagaren bidez.

Grekorekin obsesionatuta, eibartarrak haren lan ugari eskuratu zituen, horien artean *San Juanen ikuskaria* maisulana, garaiko intelektual espainiarrekin pintura harekin autoerreturatzeraino. Benetan, *Apokalipsiko* pasarteak tratatzeko kromatismo biziak, pertsonaien mistizismoak eta konposizio manieristak sortzaile modernoak liluratu zituen; Zuloagaren Pariseko estudioan ikusita, Picasso ere erabat harritu, eta *Avinongo andereñoak* gauzatzean zuzenean eragin zion. Kurioski, 1897an Zuloagak 1.000 pezetagatik erosi zuen pintura berezi hura urte askoan Euskal Herrian izan zen, Zumaiaiko Santiago Etxean, 1956an New Yorkeko MET museoari saldu arte.

Orain bi pieza horiek –Cézanne, Picasso, Pollock zein Baconenekin batera– Madrilgo Prado museoan daude ikusgai, *Greco eta pintura modernoa* erakusketa bikainean.

San Agustín KULTUR GUNEa

uda kalean bizi 2014

Che y noche
El Funeral
Uztailak 19, larunbata
20:00 - Ezkurdi

Kukai
Gelajauziak
Uztailak 20, igandea
20:30 - Ezkurdi

Jon Soloeta
Huri-Barrena jatetxea

Huribarrena kalea, 8
48210 Otxandio
(Bizkaia)
Tel.: 945 45 01 25

MACOBER

Eraikuntzarako materiala

Zeramika eta gresa

Eitua industriagunea, 66 BERRIZ
Tel.: 946 827 890 macober@movistar.es

JAIAK!

2014ko ABUZTUA |
Garai, Mañaria eta Mallabia



GARAIKO JAIEN EGITARAUA

UZTAILAK 24, EGUENA

19:00 DONIEN ATXA jartzea

21:30 HERRI AFARIA

Ondoren, Erromeria EZTEN GIRO taldeagaz

UZTAILAK 25, BARIKUA SANTIAGO EGUNA

10:30 Txistulari, dantzari eta agintarien kalejira

11:00 MEZA NAGUSIA, San Migel elizan
Ondoren, ohizko SANTIAGOren imajinaren prozesioa Elizabarriraino, apostoluari omenaldia egiteko, AGINTARIENA ETA GERNIKAKO ARBOLA dantzatzuz
Jarraian, EZPATA DANTZARIAK, herriko plazan

18:30 ERREGELEN ERAKUSTALDIA

23:00 OBANEUKE taldeagaz erromeria

UZTAILAK 26, ZAPATUA SANTA ANA EGUNA

10:30 Txistulari, dantzari eta agintariekin kalejira

11:00 MEZA NAGUSIA, Elizbarrian. **Gero**, bezperako ospakizunez osaturik SANTIAGOren imajinaren prozesioa parrokiaraino
Ondoren, EZPATA DANTZARIAK, herriko plazan, eta, jarraian, ezkonduako andreen erregelak

19:00 TORTILLA TXAPELKETA. Partaideek ekarri beharko dute dena: sua, arrautzak, olio, kipula, patatak eta gatza
SARIAK
1. 70 euro eta garaikurra
2. 40 euro eta xanpain botila bi
3. 25 euro eta xanpain botila bi

22:00 Erromeria FAN&GO taldeagaz

UZTAILAK 27, DOMEKA

11:30 Berehalako BRISKA TXAPELKETA, plazan.
SARIAK
1. 80 euro eta txapela
2. 50 euro
3. 30 euro
4. Xanpain botila bi
Izen-ematea: 10 euro bikoteak

14:30 JUBILATUEN BAZKARIA

18:00 ASTO-PROBEN ERAKUSKETA
1. IÑIGO LANDALUZE
2. IGOR OTAOLEA
3. URROLA
4. SATXIBAR

UZTAILAK 28, ASTELEHENA

11:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 19:00etara
UMEEN PUZGARRIAK

18:00 DUATLOI TXIKIA
Ume bakoitzak bizikleta, kaskoa eta arropa erosoak ekarri beharko ditu

UZTAILAK 29, MARTITZENA

12:00 PAILAZOAK

18:00 Berehalako MUS TXAPELKETA, plazan
SARIAK
1. 80 euro eta txapela
2. 50 euro
3. 30 euro
4. Xanpain botila bi
Izen-ematea: 10 euro bikoteak.

UZTAILAK 30, EGUAZTENA

19:00 PILOTA PARTIDUAK

22:00 BERTSO SAIOA

- ALAIA MARTIN
- AMETS ARZALLUS
- IGOR ELORTZA
- JON MAIA

Ondoren, LUHARTZ taldeagaz erromeria

UZTAILAK 31, EGUENA SAN IGNAZIO EGUNA

11:00 MEZA, San Migel elizan

Ondoren, DANTZARIAK

Jarraian, DURANGALDEKO IGEL TXAPELKETA
SARIAK
1. Pernila
2. Untxi bi
3. Gazta bat
Izen-ematea: euro 2

18:30 ASTO-PROBEN ERAKUSKETA
1. Partiliku Elkartea Zelai-Alai hipika eskola
2. Maiora Elkartea
3. Muebles Urrutia
4. Vitorio Celaya
Erakusketa biak kontuan harturik,
SARIAK
1. 350 eta manta
JAI BATZORDEAK emanda
2. 300 euro eta garaikurra
KIMU LORADENDAK emanda
3. 275 euro eta garaikurra
JOKIN ARREGI INDUSKETAK emanda
4. 250 euro eta garaikurra
JUAN LUIS PUJANA IGELTSEROTZAK emanda
5. 225 euro
6. 200 euro
7. 175 euro
8. 150 euro

22:30 Erromeria ANSORREGI taldeagaz

24:00 Errifaren zozketa
Ondoren, txokolatea



Hainbat erromeriaz gozatuko dute garaitarrek hilaren 24tik 31ra ospatuko diren jaietan

Garaiko jaietan garrantzi berezia hartuko du musikak; batez ere erromeriak



Garaiko jaiak uztailaren 24an hasiko dira.

> JAIK Markel Onaindia

Hilaren 24an hasiko dira Garaiko jaiak, Santiago egunaren bezperan. Hortik hilabete amaierara arte jaiak ez du etenik edu-

kiko, eta bidean Santa Ana eta San Ignazio ere aprobetxatuko dituzte, ohiturari jarraituta. Egun horietan, garrantzi berezia hartuko du musikak; batez

ere erromeriagaz gozatu ahalko dute garaitarrek.

Izan ere, uda sasoiko dantza-leku arrakastatsuenetako bat izan ohi da Garaikoa. Herri-

rrak zein inguruko herrietatik etorritakoak udaletxe aurreko plazan batzen dira, festa giroan dantza egiteko. Ezten Giro taldeak hasiko du musika egita-

Ezten Giro taldeak hasiko du musika egitaraua 24an, eta Obaneuke taldeak jarraituko dio

raua 24an, eta Obaneuke taldeak jarraituko dio hurrengo egunean. Hilaren 26an Fan&Go taldearen esku egongo da plaza animatzea. 30ean etorriko da seguruenik talde indartsuena izango dena: Luhartz. Udan herririk herri eta auzorik auzo ibiliko dira talde horretakoak, eta Garain ere eskainiko dute erromeria. Jarraitzaile ugari dauka Luhartzek, eta asko taldeagaz batera mugitzen dira herririk herri. Erromerien egitaraua Ansorregi taldeak amaituko du, hilaren 31n.

Herri ohiturak

Jaietan herri ohiturak mantentzen dituen herria da Garai. Hilaren 24an, adibidez, herri afaria egingo dute, 21:30etik aurrera. 25ean, goizeko meza nagusiaren ostean, Santiagoren

irudiagaz prozesioa egingo dute San Migel elizatik Elizabarriraino. Apostolua omenduko dute, eta, gainera, Agintariena eta *Gernikako arbola* dantzatuko dituzte. Ezpata dantzariak saioa eskainiko dute plazan. Arratsaldeko 18:30ean, ostera, erregelen erakustaldia egingo dute.

Txapelketa ugari

Gastronomia eta joko bidezko lehiaketak ez dira faltako egunotan. Hilaren 26rako tortilla txapelketa antolatu dute, 19:00etan hasita. Partaide bakoitzak eroan beharko ditu bere tresnak eta osagaiak. Irabazleari 70 euro emango dizkiote, bigarrenari 40, eta hirugarrenari 25. Hilaren

31ko mezaren ostean, Durangaldeko Igel Txapelketan parte hartuko dute, pernil bat irabazteko asmoz

27an, 11:30ean, briska txapelketa jokatu dute, 80, 50 eta 30 euroko sariekin. Hilaren 29an, 18:00etan, mus txapelketaren txanda izango da, sari berdinekin. Eta, azkenik, 31ko mezaren ostean, Durangaldeko Igel Txapelketan parte hartuko dute, pernil bat irabazteko asmoz.

Umeentzako duatloia antolatzen dabil Garaiko triatloi taldea

14 urtera artekoek parte hartu ahalko dute hilaren 28ko Duatloi Txikian



Orain arte Korrika Txikia egin izan dute Garaiko jaietan.

> KIROLA M.O.

Kirolagaz ondo pasatzeko modua edukiko dute Garaiko umeek aurtengo jaietan. Orain arte Korrika Txikia antolatu izan dute, baina aurtun Duatloi

Txikia egingo dute lehenengo. Garaiko triatloi taldea dabil prestatzen uztailaren 28an, 18:00etan, izango den ekimena.

14 urtera arteko ume eta gaztetxoek parte hartu ahalko dute

duatloian. Triatloi taldeko Jon Sarasuak adierazi duenez, adinaren arabera hiru talde egingo dituzte, bakoitzari ibilbide bat emateko. Nagusienek, adibidez, kilometro bat eta bi kilometro

arteko distantziak egingo dituzte korrika eta bizikletan. Eta gero, izerdi apur bat bota ostean, zozketak eta txokolatada izango dituzte prest umeentzat. Izan ere, Sarasuaren berbetan, ekimena ez da lehiakorra izango.

Bakoitzak bere bizikleta eta kaskoa eroan beharko ditu, eta momentuan emango dute izena

Umeen adinaren arabera hiru talde egingo dituzte, bakoitzari ibilbide bat emateko

Umeak parte hartzera animatu ditu Sarasuak. Bakoitzak bere bizikleta eta kaskoa eroan beharko ditu, eta momentuan emango dute izena. Triatloi taldekoek ezin izan dute aurtun herriko triatloia antolatu, eta jaietan lagundu gura izan dute, eurek ere herriari ekarpen bat egiteko.

Asto-probetan onenak 350 euroko saria jasoko du

> ASTO-PROBAK M.O.

Probazaleek hitzordu garrantzitsua edukiko dute Garaiko jaietan, asto-proba lehiaketa egingo da eta. Urtero legez, jendetza bilduko da Garaiko probalekuan. Zortzi astoren arteko desafioa ikusteko aukera egongo da egun biko jardunaldiaren barruan.

Garaileak 350 euro eta manta jasoko ditu, azpitxapeldunak 300 euro, eta atzetik sailkatzen direnei ere emango diete dirusaria; postu bakoitzeko 25 euro gutxiago, hain zuzen ere. Lehenengo proba uztailaren 27an egingo dute, arratsaldeko 18:00etatik aurrera. Iñigo Landaluzeren, Igor Otaolearen, Urrolaren eta Satxibarren astoek jardungo dute harriari tiraka.

Bigarrena, hilaren 31n

Bigarren saioa hilaren 31n jokatuko dute, 18:30ean. Partiliku elkartearen, Zelai-Alai hipika eskolaren, Maiora elkartearen, Muebles Urrutiaren eta Vitorio Celayaren astoak ibiliko dira zeinek metro gehiago egin.

MAÑARIKO JAIEN EGITARAUA

ABUZTUAK 3, EGUAZTENA

19:00 Dantza alardea

20:00 Txupinazoa

21:30 Herri afaria

23:30 Erromeria Ezten Giro taldeagaz

ABUZTUAK 14, EGUENA

12:00 Umeentzako tailerrak
Gaztetxoentzako jokoak

17:00 Gazteentzako jokoak

22:30 Kontzertuak:
-Tributo Parabellum
-En Tol Sarmiento
-Gatibu

ABUZTUAK 15, BARIKUA

10:00 Kalejira txistulariekin

11:00 Meza eta dantzariak

12:00 Umeentzako jokoak (19:00ak arte)

13:00 Herriko pilota txapelketako finala

17:00 Karabina jaurtiketa
(Ateneo Cinegético Mugarrak antolatuta)

18:00 Mus txapelketa

20:30 Txistorrada

22:30 Kale ikuskizuna: 'Tenderete'

ABUZTUAK 16, ZAPATUA MOZORRO EGUNA, GAIA: FILMAK

11:00 Meza eta dantzariak

12:00-14:30 Paella txapelketa

18:00 Briska txapelketa eta izurtzako dantzariak plazan

18:30 Kalejira

22:30 Kontzertuak:
-BEK
-Kilauea
-Itziarren Semeak

00:00 Pitxitxiren agurra

Ondo pasatu
Andra Mari
jaietan!



MAÑARIKO UDALA



Iaz baino egun bat gehiago, Mañariko Andra Mari jaietako egitaraua dastatzeko

Lau egunetarako jai egitaraua prestatu du Jai Batzordeak Mañarian, abuztuaren 13tik 16rako

> NOBEDADEAK Itsaso Esteban Iaz baino egun bat gehiago izango dute aurten Mañariko Andra Mari jaiak ospatzeko: lau egunetarako jai egitaraua prestatu du Jai Batzordeak. Udalak 23.000 euroko diru-laguntza eman dio Jai Batzordeari, egitaraua prestatu ahal izateko. Jaiak finantzatu ahal izateko, gainera, ohi bezala, bestelako bideak ere baliatu dituzte: herriko enpresek, dende eta tabernek ere babesten dituzte jaiak, eta txosnetan ere biltzen dute hurrengo urterako dirua. Aurten txosna bi ipiniko ditu Jai Batzordeak.

Ateneo Cinegético elkarteak emango die jaiari hasiera: abuztuaren 13an, 20:00etan

tuaren 13an, 20:00etan botako du txupinazoa. Horren aurretik, 19:00etan herriko dantza taldearen alardea izango da ikusgai.

Ateneo Cinegético elkarteak emango die jaiari hasiera: abuztuaren 13an, 20:00etan

Jendetza batzen da jaien hasieran, udaletxe parean; jendeak ohitura hartu du alardea eta txupinazoa ikusteko, eta, ondoren, herri afarira joateko. 250 lagun elkartzeko dira herri afarian.



'Filmak' gaia aukeratu dute aurtengo Mozorro Egunerako.

Iaz egin ez zituzten gazteen jokoak berreskuratu dituzte, bestalde, aurten. Lagun, ezagun edo familiarreko sei-zortzi laguneko taldeak osatuta, hainbat jolas egingo dituzte abuztuaren 14an, 17:00etatik aurrera. Egundorretan, umeentzako tailerrak egingo dituzte goizean, eta kontzertuak izango dira gauean.

Filmak gaia eman dute aurten abuztuaren 16ko Mozorro Egunerako. Paella txapelketa ere egundorretan egingo dute, 12:00etatik 14:30era. Guztiak gonbidatu dituzte mozorrotzera.

Hamar lagun inguru bildu dira Mañariko Jai Batzordean aurtengo Andra Mari jaiak antolatatzeko. Herriar guztiei deia

zabaltu diete batzordekideek jaietako egunetarako prestatutako egitaraua osatzeko egin beharrekoetan lagundu dezaten. Egitaraua gozatu ez ezik, gauzatzen laguntzeko.

Abuztuaren 16an, 00:00etan emango dituzte aurtengo jaiak amaitutzat, jaietako maskota den Pitxitxi akerra erreta.

Kontzertu erakargarriak, sei musika talderen eskutik

Tributo Parabellum, En Tol Sarmiento eta Gatibu ariko dira abuztuaren 14an

> MUSIKA I.E.

Jendea erakarriko duten kontzertuak lotzea izan da Jai Batzordearen azken urteetako apustu bat. Horrela, duela urte batzuk Zea Mays taldea ekarri zuten, esaterako. Izan ere, mañariarrek goza ditzaten helburu nagusiagaz antolatzen ditu Jai Batzordeak jaiak, baina inguruko jendea bertara gonbidatzea ere gura izaten du.

Aurten sei talde gonbidatu dituzte jaietan jotzera. Hiruna talde ariko dira Andra Mari jaietako bi gautan, Mañarian. Batetik, uztailaren 13an Gatibu, Tributo Parabellum eta En Tol Sarmiento taldeek joko dute, 22:30etik aurrera, plazan.

Abuztuaren 16an, Mozorro Egunean, berriz, herriko BEK, Kilauea eta Itziarren Semeak taldeek joko dute. Mañariko mu-

sika taldeak, Durangaldekoak zein Euskal Herria jairik jai girotzen diharduten talde ezagunak ere gonbidatu dituzte.

Baina erromerian dantzan aritzea gustuko dutenentzat eta antzerkizaleentzat ere badago eskaintzarik Mañarian: Ezten Giro taldea ariko da, esaterako, abuztuaren 13an, 23:30etik aurrera, eta *Tenderete* kale ikuskuzuna izango da 15ean, 22:30ean.



BEK (Beti Etxetik Kanpo) herriko taldeak ere joko du abuztuaren 16an.

Eguneko menuak 9,60 euro
astelehenera ostiralera
12:30 etatik 15:00 arte

Asteburuetan afariak
ogitartekoak, entsaladak,
hamburgesak, razioak, ...
20:30 etatik 23:00 arte

ERREKONDO
JATETXEA

94 681 85 77
Andra Mari, 11 - Mañaria
f errecondo taberna

HERRI-TABER

ERREKONDO WERU - PLATER KONTZERTUAK
KAZIETAKOAK - KONTZERTUAK
DANTZAKOAK - DANTZAKOAK

Herriko plaza. Tel.: 946 200 278 MAÑARIA

Launa plus
Ondua

Launa
Bodegas Arabar Erroria

www.bodegaslauna.com info@bodegaslauna.com Tel.: 94 682 41 08

HARATEGIA - URDAITEGIA

BIZKARRA

BASERRIKO OKELA
TXORIZOAK ETA
ODOLOSTEAK

Tel.: 946 816 945 • Mug.: 615 781 247 • 48212 MAÑARIA (Bizkaia)

JAVIER BIZKARRA GARRAIOAK

Karga erabilgarria 18000 kg

Andra Mari, 19-1D
Mañaria (Bizkaia)

Tel.: 659 178 332

MALLABIKO JAIEN EGITARAUA

ABUZTUAK 12, MARTITZENA

19:00 Euskal Herriko Nesken Gomazko Paleta Zirkuituko finalaurrekoak:
Mallabia I kirol etxean
· Arrizabalaga-Saez /
Goikoetxea-Villanueva
· Pradera-Etxaniz / Araiztegi-Isasmendi

ABUZTUAK 14, EGUENA, UMEEN EGUNA

11:30 Umeen txupinazoa botako du alkate txikiak

12:00-14:00 / 16:00-18:00 Umeentzako parke berezia: puzgarriak, 'jumping'-a... parkean

18:00 Bits festa, parkean

19:00 TXUPINAZOA Pedro Mari Areitioaurtena pilota epailearen eskutik

19:30-21:00 Txokolatada (Izar Gorri elkarteak antolatuta) eta Ingo al deu erromeria taldea, plazan

21:00 PILOTA PARTIDUAK

Mallabia I kirol etxean.

- 1) Euskal Herriko Nesken Gomazko Paleta Zirkuituko finalak
- 2) Mendizabal III-Apezetxea (Lau t'erdian)
- 3) Irujo-Tolosa / Ezkurdia-Zabaleta

Azken orduan aldaketak egon daitezke

PILOTA PARTIDURAKO SARRERAK

Sarrerak abuztuaren 1etik 8ra

salgai, udaletxean.

-Mallabiko langabe, ikasle eta jubilatuentzat

12 euro, justifikazio txartela erakutsita

-Gainontzeko mallabitarrentzat 18 euro

-Mallabian errolatuta ez daudenentzat 25 euro. Partidu egunean leihatila 20:30ean zabalduko da, eta sarrerak 25 euroan egongo dira denentzat

00:00 Erromeria, plazan

Ingo Al Deu taldeagaz

ABUZTUAK 15, BARIKUA ANDRA MARI EGUNA

11:00 Meza, Jasokunde parrokan
Ondoren, kalejira plazatik pilotalekura, Mallabiko dantzariekin

12:15 Mallabiko dantzarien emanaldia pilotalekuan

17:30 Tute, mus eta briska txapelketak, tabernetan

Tute txapelketaren antolatzailea:

Bastida taberna

Mus txapelketaren antolatzailea:

Jubilatuena etxea

Briska txapelketaren antolatzailea:

Herriko taberna

1. saria 60 euro

2. saria 30 euro

17:30 Mallabiko XXIV. Harri-jasotze Saria Harri Txikia

Tokia: Mallabia I kirol etxea.

100 kg-ko zilindro zaharra eta 100 kg-ko bola

Parte-hartzaileak:

Inhar Urruzuno (Bizkaia)

Izeta III (Gipuzkoa)

Mikel Lopetegi (Gipuzkoa)

Aimar Galarraga (Gipuzkoa)

Iñigo Eizagirre (Gipuzkoa)

Xabat Olaizola (Gipuzkoa)

Urrutia (Nafarroa)

SARIAK

1. 800 garaikurra eta txapela

2. 650 euro eta garaikurra

3. 500 euro eta garaikurra

4. 400 euro

Gainerako parte-hartzaileentzako dieta 250 eurokoa izango da

Dagoen marka gainditzen duenari 180 euro

Lehiaketan parte hartzeko izen-ematea

egunean bertan amaituko da

23:00 Korrontzi taldearen musika-dantza ikuskizuna, parkean

ABUZTUAK 16, ZAPATUA, SAN ROKE EGUNA NAGUSI ETA KUADRILLEN EGUNA

11:00 XV. PAELLA eta III. MARMITAKO

LEHIAKETARAKO izen-ematea.

OINARRIAK

-13:00etan marmitakoaren eta 13:30ean

paellaren aurkezpena epaimahaiaren

aurtean, eta, jarraian, sari banaketa

-Taldea bakoitzak bere sua ekarri beharko du,

butanoa edo barbakoa, baina ezin da sua

lurrean egin

-Lehiaketa herriko plazan egingo da

SARIAK:

Marmitakoa: 1. saria: 110 euro /

2. saria: 55 euro

Paella: 1. saria: 110 euro / 2. saria: 55 euro

Mallabiko trikitilariak animatuko dute giroa

Bazkarirako: animatu eta ekarri etxetik

platerak, edalontziak eta mahai tresnak

Nahi izanez gero, ontzi berrerabilgarriak

egongo dira DOHAINIK

12:00 Meza, Jasokunde parrokan

14:00 Jubilatuen bazkaria pilotalekuan, trikitilariak eta bertsolariak girotuta

17:30 Kuadrillen arteko jolasak

20:00 Mallabitar guztientzat SAGARDOA doan eta TXERRI ERRE DASTAKETA (2 pintxo, euro 1)

20:30 Erromeria, plazan, Joxpa taldeagaz

XXVI. IDI PROBA TXAPELKETA:

ABUZTUAK 22, 23, 24 eta 25

Izen-ematea: abuztuaren 3an (domeka), eguerdiko 12:00etan, udaletxean

SARIAK

1. 1.600 garaikurra, txapela eta mantak

2. 1.350 euro eta garaikurra

3. 1.200 euro eta garaikurra

4. 1.000 euro eta garaikurra

5. 900 euro

6. 800 euro

7. 750 euro

8. 700 euro

9. 650 euro

10. 600 euro

11. 550 euro

12. 500 euro

* Sarietara heldu ez arren, 30 untzeko marka gainditzen duen idi pareak 350 euro jasoko ditu

OHARRA: Jaietan ezbeharren bat gertatuko balitz, Mallabiko Udalak ez luke inongo erantzukizunik izango.



Ondo pasatu
Andramari
jaietan!



MALLABIKO UDALA

Alkate txikiaren txupinazoagaz abiatuko dituzte Mallabiko jaiak

Araitz Katarain izango da aurten alkate txikia

► **NOBEDADEAK** J. Guenetxea Alkate txikiak umeen txupinazoagaz emango die hasiera Andra Mari jaiei, abuztuaren 14an. Orain urte bi inguru ekin zioten jaietan alkate txikiaren kargua zotz egiteari. Guraso elkarreak ardura hori hartu gura duten gazteen artean zozketa egiten du. Horrela, aurten, Araitz Katarain izan da aukeratua. Mila Mondragonek alkate makila emango dio Kataraini goizeko 11:30erako aurreikusita dagoen ekitaldian. Egun osoan umeentzako parkea egongo da, eta arratsaldean bits festan gozatzeko aukera izango dute.

Arratsaldeko 19:00etan, berriz, helduen txupinazoa jaurtiko du Pedro Mari Areitioaurtena pilota epaileak, jaiei hasiera ofiziala emateko.

Abuztuaren 15ean, Andra

Mari egunez, meza izango da Jasokundeko parrokiari. Ondoren, Mallabiko dantzariak kalejiran irtengo dira plazatik pilotalekura, emanaldia eskaintzeko.

Folk doinuak lantzen dituen Korrontzi taldea izango da aurtengo jaietako berrikuntzetako bat

Folk doinuak Musikari dagokionez, folk doinuak lantzen dituen Getxoko Korrontzi taldea izango da aurtengo jaietako berrikuntza nagusia. Ingo al deu taldeak erromeria giroa ekarriko du



lazko Mallabiko jaietako argazkia.

Mallabira. Era berean, Joxpa taldearen erromeriagaz itxiko dute egitaraua.

Bestalde, herri kirolek protagonismo berezia izaten dute Mallabiko jaietan. Abuztuaren 15ean, harri-jasotze saria (ha-

rri txikia) jokatuko dute. Inhar Urruzuno, Izeta III, Mikel Lope-tegi, Aimar Galarraga, Iñigo Eizagirre, Xabat Olaizola eta Urrutia nor baino nor arituko dira.

Abuztuaren 22tik 25era, XXVI. Idi Proba Txapelketa

lehiatuko dute. Irabazleak 1.600 euroko saria, garaikurra, txapela eta mantak eramango ditu etxera. Antolatzaileek azaldu dutenez, izen-ematea abuztuaren 3an izango da, eguerdiko 12:00etan, udaletxean.

Euskal Herriko Nesken Paleta Goma Txapelketako finalak jokatuko dituzte

Profesionalen partiduekin osatuko dute pilotari eskainitako egitaraua

► **PILOTA** J.G.

Pilotak tradizio handia du Mallabian, eta horrek jai egitarauan ere badu bere isla. Euskal Herriko Nesken Gomazko Paleta Zirkuituko finalurrekoak abuztuaren 12an jokatuko dituzte Mallabia I kirol etxean. Arribalaga eta Sáez arituko dira Goikoetxea eta Villanuevaren aurka. Bigarren partiduan Pradera eta Etxaniz lehiatuko dira Araiztegi eta Isasmendiren kontra. Itsaso Pradera eta Amaia Araiztegi mallabitarrek txapela etxean gelditzea gurako dute.

Abuztuaren 14an, berriz, finala erabakiko dute.

Profesionalen partidua

Profesionalek lagunarteko partidu bi jokatuko dituzte, nesken paleta gomazko finalaren ostean. Lau t'erdian, Mendizabal III eta Azpezetxearen arteko lehia izango da lehenengo. Kartelburuan, berriz, Juan Martínez de Irujo buruz buruko eta binakako txapelketa izango da. Ama mallabitarra duen Xabier Tolosa izango du aldamenear Irujok. Bikote indartsu horrek

Ezkurdia eta Zabaleta izango ditu aurrez aurre. Bikote gazte eta jotzaileari aurre egiten saiatuko dira Irujo eta Tolosa.

Irujok eta Tolosak Ezkurdia eta Zabaletaren aurka jokatuko dute Mallabian



Itsaso Pradera.



Juan Martínez de Irujo.



HYDRAULIC

Avenida Urtiaga, 6
MALLABIA
Tel.: 943 17 12 00
Fax: 943 17 41 66
comercial@larzep.com



RHEYDE
lanabesak s.l.

Perfilados / Modificación / Recuperaciones

P.I. Goibondo, p.3 - 48269 MALLABIA • Apdo. 184 - 48260 ERMUA

JUBILATUEN ETXEA

943 176 602 • MALLABIA



ROTEK
rótulos

Tel./Faxa:
943 170 036
656 781 952

www.rotekrotulos.com

Pedro Mari Areitioaurtena | Mallabia, 1947 | Jaietako txupinazoa jaurtiko du

“Laguntza ematea gustatzen zait; herri txikietan egin beharra dago”

Pedro Mari Areitioaurtenak Mallabiko jaiei hasiera emango dien txupinazoa piztuko du aurten



Pedro Mari Areitioaurtena, txupinazoa jaurtiko duen Mallabiko udaletxeko balkoiaren aurrean.

► ELKARRIZKETA J. Derteano Noiz esan zizuten txupinazoa zeuk botako zenuela?

Xabatek esan zidan [Pedro Mari-
ren semea, eta zinegotzi izana],
eta ea zer iruditzen zitzaidan
galdetu zidan. Ni ez naiz ho-
rrelako gauzen zalea. Lanean
dabiltzan beste lagun batzuk
ere badaudela ikusten dut, eta
zergatik ni? Hasieran ezetz esan
nien. Laguntzea gustatzen zait;
herri txikietan egin beharra
dago. Baina ekin eta ekin egin
zidaten, eta azkenean onartu
egin nuen.

Gaztetan pilotan jokatu ze- nuen?

Umetan elizpean aritzen gi-
nen, zapatak kenduta, gastatu
ez zitezen. Sarritan ama etor-
tzen zitzaigun bila, bestela, ezin
erretiratu! Pilotari larrua apur-

tzen bazitzaion, bertan josten
genuen. Orintxe ere asmatuko
nuke pilota josten. Pilota beti
gustatu izan zait, baina gerrian
arazoak izan ditut, eta pilotari
izateko gerria behar da.

Zelan hasi zinen epaile lane- tan?

Epaile lanetan hasi nintzenen,
inguruan bakarra zegoen, Zaldi-
barko Karmel. Mallabian Ricar-
do Altube izan zen pilota kluba
martxan ipini zuena. Pilotariak
herriartekoan txapelak irabaz-
ten ikusten genituen, Ermuan,
Zaldibarren... Eta hemen zerga-
tik ez? Elizpean txapelketa sortu
eta jokatzeko bururatu zitzaion.
Apurka-apurka pilota kluba sor-
tu zen. Nik edozertan laguntzen
nuen, epaile lanetan, esaterako.
Hasieran, Andres Martin eta
biok txandaka ibiltzen ginen.

Ondoren, Agustin Solozabal klu-
beko arduradunak esan zidan fe-
derazioan epaileak falta zitzaiz-
kiela, eta horrela hasi nintzen
epaile ofizial moduan.

Epaile baten lanak esker txar- rekoa ematen du.

Horrek ez nau beldurtzen eta
arduratzen. Uste dut mesedega-
rria dela. Pilotari gazte askoren
epailea izan naiz: ulertu egin
behar ditugu, eta ez dugu berba
txarrik inorentzat eduki behar.
Epailea erratu daiteke erabaki
batean, hori normala da pilotan
zein bizitzan. Egin behar ez de-
na harrotzea da. Txarto eginez
gero, barkamena eskatu, eta “hi,
egon hadi lasai” entzutea da nor-
malena. Jendea ulerkorra da. Pi-
lotarien familia asko ezagutzen
ditut, eta ikusten nauten tokian
ikusten nautela agurtu barik ez

dira geratuko sekula. Norbera
aberastu egiten da horregaz.

Pilotari profesionalen epaile ere izan zara?

Normalean herrietako jaietako
partiduak izan dira. Baina, dena
dela, gaur egun profesionaletan
dabiltzan askori afizionatu mai-
lan zuzendu dizkiet partiduak.
Partidu bat sekula ez zait ahaz-
tuko: Ermuan, Santiago egunez,
aurrean Mikel Goñik jokatzeko
zuen, eta ni atzeko epailea nin-
tzen. Humberto Alzaga aurreko
epaileak falta bat adierazi zion
Goñiri, buelta eman zuen, eta
Alzagari zuzendu zitzaion, be-
soekin eskopeta bat irudikatuta.
Hedabide guztietan agertu zen
argazki hori. Orintsu epaile
lanetan aritu naiz Goñiren par-
tidu batean, eta, batere arazo
barik, “kaixo, zelan zabiltza?”,
esan zidan.

Mallabiko pilota eskolako zu- zendaritzan ere egona zara.

Urte haietan epaile lanetan ira-
bazten nuen dirua, afizionatu
mailan zein profesionaletan,
pilota eskolari ematen nion. Zu-
zendaritzan bi epealditan egon
nintzen diruzain. Orain ez nago

zuzendaritzan, baina, ezertara-
ko laguntza behar bada, aintzat
hartu nazatela. Ahal dudan guz-
tian laguntzeko prest nago.

Afizionatu mailan, Euskal He- rrian dagoen pilota txapelketa- rik garrantzitsuenetakoa anto- latzen du pilota eskolak.

Bai, Biharko Izarrak txapelketa
inportanteenetakoa eta berezie-
na da, jokatzeko sistemagatik.
Denek denekin jokatzeko dute,
txandaka. Beste txapelketa ba-
tzuatan izena eman duten biko-
teak ikusi, eta badakizu finala
nortzuk jokatu dute. Ma-
llabian ez, partidu bakoitzean
aldatzen direlako bikoteak. Su-
matu zenezake, baina gaitza da
asmatzea.

Herriko kanpandorreko erlo- juaren ardura duzu gaur egun. Zer-nolako lana da?

Elizako organistak zaintzen
zuen, baina 88 urte ditu, eta hara
gora igotzeko eskailerak arris-
kutsuak dira. Orain neu ardu-
ratzen naiz. Tenperaturak gora
egiten duenean, erlojua aurre-
ratu egiten da, eta, fresko egiten
duenean atzeratu. Doitu beha-
rra egoten da. Berez ez da lan
gogorra, baina iaz euri asko egin
zuen, ura barrura sartu zen, eta
mekanismo elektrikoak busti
zituen. Udaletxeko 3.000 wateko
lehorgailua hartu, eta haregaz
lehortu behar izan genuen. On-
doren, urik berriro ez sartzeko
babestu genuen, baina hainbat
buruhaustegaz ibili ginen.

Excavaciones Jon
Lur mugimenduak

• Jon Garitagoitia Gallastegui •

**MOTA GUZTIETAKO
INDUSKETAK
HONDAKINDEGIA**

Pagotxueta, z/g • GERA • 48269 MALLABIA
Tel.: 943 17 26 54 • Mug.: 629 446 099

Ganadu garraioa
Juan Luis Irazola

Tel.: 609 794 504
943 170 651
48269 MALLABIA

Excavaciones BOLIÑA
Mallabia - Bizkaia

629 340 410 • 618 954 280
excavacionesbolina@hotmail.es

BETEARTE

BI-3342 errep., pk. 38
Areitio Garaia
48269 Mallabia (Bizkaia)
Tel.: 943 170 307

OSASUN GIDA



FISIOTERAPIA

Zainduz

**FISIOTERAPIA
OSTEOPATIA**

Ane Legorburu Munitxa

Trañabarren 13, 4. blokea,
behea eskuma
48220 MATIENA-ABADIÑO

Tel.: 944 657 132 - 686 906 374

RPS: 119/13

Oreka
Idurre Zabala Amezua

**FISIOTERAPIA
ETA ERREHABILITAZIOA**

Erditze aurreko eta ostekoa, txizari ezin
eustea, traumatologia, kirola, auto istripua,
drainatze linfatikoa (basektomia ondoren)...

Iturriza, 44 - behea ezkerre
48240 BERRIZ

Tel.: 946 225 593



PSIKOLOGIA

JON ARRUABARRENA

PSIKOLOGO KLINIKOA
PORTAERA TERAPIAN MASTERDUNA

- Ansietatea, estresa, fobiak
- Depresioa • Eskola arazoak

UMEAK - NAGUSIAK - BIKOTEAK

Frantzisko Ibarra, 6 - DURANGO
jon@psikologo.biz - www.psikologo.biz

Tel.: 946 033 246 - 629 245 728

RPS: 62/11



PODOLOGIA

JON GERRIKAETXEBARRIA

Gaixotasunak - Ortopedia
Oin kirurgia

IMQ - SANITAS - ARESA

Ermodo, 2 - 1 eskuma
48200 DURANGO

Tel.: 946 201 100

RPS: 108/13

**PODOLOGIA
KLINIKA**

GOIATZ MURUA
PODOLOGOA

AINHOA ELORZA
PODOLOGOA

Kiropodia, onikopatia, alterazio
dermatologikoak eta ibilerako alterazioak

Monagotorre, 4 - behea
48200 DURANGO

Tel.: 946 203 630

148/13



ESTETIKA

AGIRRE KLINIKA
MEDIKUNTZA ESTETIKOA

www.medicinaesteticaDurango.com

Laser berria:

Tatuajeak behin betiko kentzeko laserra

Obesitatea-zelulitisa,
Laserra: depilazioa (prezio bereziak), barizeak...
Adinaren kontrako tratamenduak: orbanak, botoxa...

Txatxiena, 6
48200 DURANGO

Tel.: 946 810 387

RPS: 16/09



ODONTOLOGIA

**B. UNAMUNZAGA
E. ETXEBARRIA**

ODONTOLOGIA OROKORRA
ETA ESPEZIALIZATUA

Muruetatorre, 2 - C behea
48200 DURANGO

uecdental@gmail.com

Tel.: 946 819 951 Mug.: 717 194 454

RPS: 145/13

J.L. URRETA ZABALO

MEDIKU ESTOMATOLOGOA
IMQ, PADI (umeen hortz programa)
Ortodontzia

Zumalakarregi, 18 - 1. ezk
48200 DURANGO

Tel.: 946 812 200

RPS: 112/13



OPTIKA

keinuu
optometria zentroa

ZENTRO OPTIKOA

Teknika aitzindariak, kontaktologia, haurren
ikusmena, ikusmen terapia, audiometria,
NAHIA ZABALA eta AITZIBER ZABALA

Arkaraz, 3
48240 BERRIZ

Tel.: 946 225 099

RPS: 162/13



PEDAGOGIA

UGAITZ

**UMEAREN
GARAPENERAKO
ZENTROA**

Laguntza goiztiarra, psikomotrizitatea,
fisioterapia, logopedia

Juan de Olazarán, 1 behea
48200 DURANGO

Tel.: 944 668 370 - 615 782 090

RPS: 63/63



**Profesional
onenak zure
zerbitzura!**

Guillem Gisbert | Bartzelona | Manel taldeko abeslaria

Guillem Gisbert (ezkerretik bigarren), Arnau Vallvé, Roger Padilla, eta Martí Maymó taldekideekin.

“Urteekin kanta idazle gisa konfiantza lortu dugu”

> ELKARRIZKETA Itsaso Esteban ‘Atletes, baixin de l’escenari’ hirugarren diskoko eta taldearen ibilbide osoko kantak eskainiko dituzte Manel taldeko bartzelonarrek Elorrioko Tola jauregian, bihar, 22:30ean hasita.

Zelako kontzertuak ari zarete eskaintzen azken aldian?

Azken hilabeteetan duela urtebete argitaratutako hirugarren diskoko kantak zuzenean aurkezten ibili gara, baina orain bestelako zuzenekoak egiten gabiltza: hiru diskoetako kantak jotzen ditugu, azkenengoan hainbeste zentratu barik.

Gogoko duzue duela urte batzuetako kantak jotzea?

Oraintxe ari naiz sentitzen badugula oraingo eta lehengo kantak errepertorioa eskaintzeko. Hala ere, taldeoi orokorrean egindako azken lana erakustea

“

Kontzertua edozein lekutan dela ere, ahalik eta saiorik onena egiten saiatzen gara beti”

“

Azkenengoan hainbeste zentratu barik, gure hiru diskoetako kantak joko ditugu”

gustatzen zaigu gehien: horregaz identifikatzen gara gehien.

Elorrioren jo aurreko egunean FIB jaialdi handian joko duzue. Denetan jotzen duzue gustura? *Atletes, baixin de l’escenari* diskoa Primavera Sound jaialdian aurkeztu genuen duela urtebete, eta jende askoren aurrean aritu ginen, baina etxean geunden, eta igartzen da hori ere. Antzokietan ere jo dugu sarritan: entzuleak lasai-lasai eta adi-adi egoten dira horietan. Edozelan ere, oso sinplea da kontua: deitzen diguten lekuetara joaten gara gure kantak jotzera. Kontzertua edozein lekutan dela ere, ahalik eta kontzerturik onena egiten saiatzen gara beti.

Oso desberdina da Katalunian edo hortik kanpo jendeak Manel egiten dion harrerara?

Bai, noski. Hizkuntzaren eragi-

na argia da: egiten dugunaren parte bat musika da, eta beste bat letra. Katalana entzutera ohituta ez dagoen jendeak esfortzu bat egin behar du. Eta argi dago: batzuek jakin-min handiagoa dute beste batzuek baino.

Iaz Antonia Font taldeak jo zuen Elorrioko Musikairean. Euren musika gogoko duzue?

Kantak egiten hasi ginenean asko entzun genituen. Lagunak ditugu. Duela hilabete batzuk taldea utzi zutenean pena handia hartu genuen.

Zuen musikak izan duen eboluzioa azaltzerik baduzu?

Zaila da, baina badaude objektiboak diren hainbat gauza: hasi ginenean ukelelearen tinbreak asko markatzen zuen gure musika, esaterako. Gutxinaka instrumentu hori uzten joan gara: azken diskoan eta egungo kontzertuetan ez dago ukelelerik.

Hain justu, ukelelea moda bihurtu denean utzi duzue.

Guk egin genuenean ez ginen konturatzen inguruan zelako fenomeno sortzen ari zen. Urte

batzuk barru atzera begiratzera koan konturatuko gara 2010. urte inguruko soinua ukelelearen hori zela; 80ko hamarkadan sintetizadoreak izan ziren moduan. Hala ere, uste dut moda hori gutxinaka atzean uzten gabiltzala.

Letrei dagokienez, zer ibilbide egin duzue?

Urteekin, kanta idazle gisa konfiantza lortu dugu; lehen ez bezala, orain letrak uzatzen auzartzen gara, esaterako. Letrei dagokienez, gure intereseko gaiak modu dibertigarrian esatea izaten da gure helburua.

Zer egoeratan dago Katalunian musika eszena?

Sekula ez dut oso argi eduki zer den eszena kataluniarra, egia esan. Katalunian beti egon dira musikariak eta musika taldeak. Egia da 2010. urte inguruan publiko zabal baten interesa lortu zutela katalanez diharduten hainbat taldek. Uste dut aldiak egoten dira horretan. Gaur egun, bestalde, Internetek asko errazten du gurea bezalako taldeen musika Kataluniatik kanpo ere ezagutaraztea.

ZARATE ELEXPE
ERAGILEAK
HURRENGO ERAIKUNTZA

Bixente Kapanaga, 19 behe - 946 816 673 - lurreta
www.zarateylexpe.com

Grupo **CATALANA OCCIDENTE**

RUEDA BILBAO ASEGURUAK
Jabier Rueda

Agirre Lehendakari kalea, 8 - 48200 Durango
Tel.: 946 202 710 - Faxe: 946 816 577
posta elektronikoa: jrueda@segurosbilbao.com

Arrike
Liburudenda

Kalebarria z/g - Durango
Tel.: 946 201 893
Faxe: 946 816 403

 Kirola**Unai Uribarri** | Duranguesa txirrindulari taldeko kidea | Mañaria, 1984

“Duranguesa ez balitz egongo, gazteek ez lukete bultzadarik edukiko”

Unai Uribarri txirrindulari profesionala izan zen; Duranguesa elkartean gazteekin dabil lanean orain



> TXIRRINDULARITZA M.O.
Odolean darama txirrindularitza. 2006an egin zen ezagun, Euskaltelegaz profesionalean debutatu zuelako. Baina horren aurretik eta ostetik ere bizikletari lotuta bizi izan da. Gaur egun kirol horren sustapenean dabil Duranguesa elkartean, eta batzarkide lanetan hasi berri da. Frantziako Tourreko etapa amaiera ikusi baino lehen etorri da elkarrizketara.

Zelan zabiltza Duranguesako arduragaz?

Azken urteetan jende gaztea hasi gara batzordean sartzen. Elkarteari bizitasun apur bat ematen, lehenengo klasikotik beritasun apur bat sortzen. Txirrindulariok ondo dakigun moduan, gero eta jende gutxiago dago, gero eta ume gutxiago, eta arlo hori bultzatzeko gaude.

Gero eta ume gutxiago dago?
Bai. Ni 11 urte gaz hasi nintze-

netik hona sekulako aldea dago belaunaldi guztietan. Lasterketan asko igartzen da, adibidez. Gu pelotoian 100 inguru egoten ginen, eta orain horrelako trope la lortzea gaitza da.

“

Gu pelotoian 100 inguru egoten ginen, eta orain horrelako tropela lortzea gaitza da

Zer asmo duzue aurrera begira?

Gaztetxoekin eskolarik eskola ibili gara. Zer eskaintzen dugun, eta gure helburu nagusia ondo pasatzea dela azaldu diegu. Gaztetxoek asteburu batzuetan irteerak egiten dituzte basora gurasoekin. Orain mendiko bi-

zikleta erabiltzen da gehiago; lehen dena zen errepidekoa, eta orain basokoa. Gero, kade te mailan Elorrioko taldekoek hartzen dituzte, eta jubeniletan gurera pasatzen dira berriro. Jubenil mailan txirrindulari trukaketa bultzatzen gabilta, batez ere Eskoziakoekin. Orain hemen lau txirrindulari daude, bertakoen etxeetan. Gero hemengoak joango dira hara. Nazioarteko egutegiko lasterketa batzuk dauzkate; hil amaieran Belgikara doaz, eta aurrerago Galesko Itzulia korrituko dute.

Zuen moduko taldeak sostengu dira txirrindularitzan.

Duranguesa ez balitz egongo, gazteek ez lukete bultzadarik edukiko. Umezurtz geratuko lirakeke.

Durungaldean aspalditik dago zaletasun handia, ezta?

Nik baietz uste dut, eta badut esperantzarik: apur bat saiatuz

gero, berriro lortuko dugu indarra.

Entrenatzeko, errepideak hobe beharko lirakeke?

Durungaldean trafiko asko dago. Batez ere, Berriztik Zornotzara doana, baina baita Arrasaterakoa ere. Bidegorri gehiago egon beharko lirakeke.

“

Dauphine Libere lasterketaz gustura geratu nintzen

Gazte zinela hasi, eta gorengo mailara heltzea lortu zenuen. Zelakoa izan zen sasoi hura?
Gogorra, eta aldi berean polita. Nahiko gazte pasatu nintzen profesionaletara, 20 urte gaz.

UCI Pro Tour lasterketak sortu zireneko sasoi izan zen, eta exigentzia maila askoz handiago izan zen. Lasterketa batzuetara UCI Pro Tour osatzen zuten talde guztiek joan behar zuten, eta horrela kalitatea igo egiten zen. Esperientzia polita izan zen niretzat; laburra, eta horixe penarik handiena. Baina ez naiz ezertaz damutzen, pozik nago egindakoaz. 2006-2007an Euskaltelen egon nintzen, eta 2008an Orbean.

Zein momentu on daukazu akorduan?

Gustura geratu nintzen Dauphine Libere lasterketaz. Batez ere Frantziako Tourra korritu behar zuen taldeaz joan nintzen, eta oso gustura sentitu nintzen.

Geroztik zelako harremana eduki duzu txirrindularitzaz?

Utzitakoan, mekanikari lanetan ibili nintzen hiru urtez Seguros Bilbaon. Gero, hori utzitakoan, Duranguesaz hasi nintzen.

Bizikleta zure bizitzako parte garrantzitsu bat da.

11 urte gaz hasi nintzen lehiatzen. Lehenengo aitagaz ibiltzen nintzen; aita betidanik ibili da bizikletan. Orain, gustuko dudalako irteten naiz bizikletan, lehen baino gutxitxoago bada ere; baina, beno, telebistan dagoenean ere beti jarraitzen dut.

Odolean daramazula esan daiteke.

Familiakoak ere dezente izan dira txirrindulariak. Gorospe-tarrak eta hor daude, nire lehen-gusuak dira.

Urkiola sarritan igoko zenuen, bada?

Ez pentsatu! Normalean behe-rantz egiten dut [barrez]. Bizi osoan hoge bi bider igo badut! Orain jende nagusiak eta gehiagotan igotzen du, baina lehiatzen dabilzan gazteek lantzean behin bakarrik igotzen dute. Gogorra da; nahiago dut beste aldetik igo eta Durangaldetik bajatu.

Tourreko etapak ikusten dituzu. Froome eta Contador barik, zein da faborito?

Nik pronostiko guztietan Froome ipini nuen. Orain, Nibali ikusten da indartsuen, bai ordekan, bai mendian, eta horregatik dago lider.

Eta bertara joateko asmorik?
Lau-bost urte joan barik egon naiz, eta aurtan berriro joango naiz. 21etik 25era noa, Pirinioetan etapa pare bat ikustera.

Iranen surfa sustatuko du Elorrioko Cross Culture Surf elkarteak

Waves Of Freedom elkarteagaz elkarlanean ariko da; finantziazioa batzeko bigarren eskuko azoka antolatu dute uztailaren 26rako, Elorrion



Abuztuan joango dira Iranera 'Surf Seeds' proiektuaren barruan.

> SURFA Joseba Derteano Elorrioko Cross Culture Surf elkarteak eta Waves of Freedom elkarteak Iranen surfa sustatzeko *Surf Seeds* (surf haziak) proiektua landuko dute abuztuan. Waves of Freedom Iranen izan zen orain urte bi ere (goialdeko irudia orduko esperientziaren harira hartutakoa da), eta oraingo egitasmoak ordukoa

garatzea du helburu: "Orduan haziak erein zituzten, eta orain hazi horiek ureztatzeko momentua dela uste dugu", adierazi du Cross Culture Surf elkarteak Joseba Attard-ek.

Horretarako Irango Gobernuaren babesla dutela adierazi du: "Irango Kirol ministroak gonbidapena luzatu digu bertara joateko". Proiektuak helburu

nagusi bi ditu: surfa kirol erakargarria dela erakustea, eta surfak hango ekonomiari zer onura ekarri ahal dizkion azaltzea: "Proiektu ausarta da, eta, era berean, oso polita". Egitasmoak askotariko ekintzak aurreikusten ditu: profesional eskaintako surf eskolak, itsasoan larrialdiko erreskateak zelan egin jakiteko ikastaroak,

inguruko kirol klubekin eta unibertsitateetako ikasleekin topaketak, eta politikoei zein inguruko agintariekin batzararak, surfa turismoa sustatzeko bidea izan daitekeela azaltzeko.

Proiektuaren erdigunea Iranen hegoekialdean dagoen Baluchistan probintziako Ramin herria izango da. Hango kostaldeak mediterraneo itsasora ematen du: "Ramin herri txiki eta pobre bat da. Baina kostalde eta hondartza onak dauzkate, eta olatu onak daude. Jendeak pentsatu dezake Iranen ez dagoela olatu askorik, baina ez da horrela. Olatuak badaude, baina surfariak falta dira".

Bigarren eskuko azoka

Proiektuak hainbat gastu ditu, surf egiteko materiala lortu beharra, esaterako. Babesle bila dabilta, baina finantziazioa lortzeko beste bide batzuk ere landuko dituzte. Horrela, uztailaren 26rako bigarren eskuko azoka antolatuko dute Elorrioko plazan. Azokan produktuak saltzeko tokia gordetzeak bost euro balioko du. Gainerako dirua, salmentetatik datorrena, postu bakoitza ipini duenarentzat izango da.

Hainbat bide daude azokan izena emateko: hello@crossculturesurf.com helbidea, Elorrioko Igartua Kirolak denda (Elorrioko plazan) edo 667 918 871 telefono zenbakia.

daren kontra egin zuen debuta ACBn, eta, ondoren, ligako beste partidua bitan eta Euroligako lautan hartu zuen parte. Baskoniak liga eta Espainiako Superkopa irabazi zituen urte hartan.

2008-09 denboraldian Baskonia utzi zuen, eta hurrengo hiru denboraldietan beste hainbeste taldetan aritu zen. 2010-11 denboraldian Laboral Kutxa Baskoniara itzuli zen, baina ez zuen asko jokatu. Ondoren, Zilarrezko mailako Adecco ligan aritu zen lehenengo, eta EBA mailan, ondoren, Oñatiko taldeagaz. Orain urte bi aurreneko tokian geratu zen taldea EBAn; Garcia ligako bigarren saskiratzaile onena izan zen (19,5 puntu), eta MVP saria eskuratu zuen.

ADITUAREN TXOKOA



Mikel Aranguren

Futbola

Taldearen garrantzia

Brasilgo Munduko Kopa amaitu da, eta selekzioei euren errendimendua aztertzea dagokie. Sailkapenean postu onena lortu dutenen artean, joko estilo desberdinak ikusi ditugu, eta baita taldea kudeatzeko era desberdinak ere.

